



AZKEN JOSTUN GIZONEZKOA

Inazio Urrestilla sastreari elkarrizketa egin dio Imanol Eliasek (3-5)

BERTAKO HARAGIA... ...GURE HARATEGIETAN



Beloki
Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62
AZKOITIA
Jose Arretxe, 21 Tel.: 943 15392
AZPEITIA

PATXO

EDUARDO BERRASATEGUI
Harategi eta Zerritegia
Euskal Herriko Haragirik Onena
San Inazio Kaleko 12an
Urrut: 943 81 14 98

bertako okela
HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEKO 15 00 03
AZPEITIA

Harategi
Especializatua
Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015

HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA
ETXEKO URDAIKIA
FORU HEBILBIDEA, 4
TFNOA. 81 15 94
AZPEITIA

KALITATEZKO
HARAGIA
BUSTINZURIKO ERREBA
TFNOA.: 943 811671

Xoxoteko
aterpean
zaindari
berriak
(12)

Erniarraitz II.
bertso paper
lehiaketako
bertso
saridunak (17)



Aurtengo
udal
aurrekontuak
onartu dira
(18-19)



Ainhoa
Bastida,
Txinan den
herritarra (50)

uztarria

Inazio Urrestilla

Jostuna

XVI. mendetik jostun edo sastre ugari izan dira Azpeitian. Azken sastre Inazio Urrestilla izan da, eta honek jostunaren zenbait lan egiten jarraitzen badu ere dendan, 1992an utzi zuen ofizioa

“Orain dela 11 urte egin nuen azkeneko trajea”



Imanol Elias Odrizola

Inazio Urrestilla herriko azken sastre edo gizonezko jostuna da. Nolanahi ere, Azpeitiko historian aurkitzen ditugu ofizio berdineko gizonezko jostunak: 1561ean Migel Aizpuru, 1599an Domingo Goitia, 1641ean Kristobal Ibarzabal, 1671n Frantzisko Arizabalo, 1675ean Antonio Ormaetxea, 1767an Diego Foronda, 1770ean Inazio Zubillaga; eta geuk ezagutu genituen, ondoren, Joxe Mari Soraza- »

» bal, Periko Lazkano, Demetrio Egiguren, Eloi Zendoia eta Luis Ibarzabal.

● Nondik nora sortu zen zugar jostunaren ofizioa ikasteko gogo?

Sortu? Sekula ez! Ezin dut ahaztu nola entzun zen gure etxean behin ofizio horren berri. Antzinako ohiturari jarraituz, urtean behin Azpeitiko herria Arantzazura erro-mes joaten da. Garai batean sekulako jendetza joan ohi zen, autobusean bidaiak egin beharrean kamioietan egiten zen bidaiak, tolidoarekin estali eta aulki luzeetan eserita. Gure gurasok ere egin zuten bidaiak horietako bat hamabost urte nituenen; bueltan ginela, amak galdetu zidan zer ofizio ikasi behar nuen. Arantzazuko Andre Mariak esan omen zion egokia sastre ikasketak egitea zela. Eta jakina, horrela izanda, ezin esan ezetzik...

● Aurrez beste ofiziorik pentsatuta bai?

Pentsatu... hamabost urterekin pentsatu behar nuenik ere ez. Uste nuen nire aitari laguntzen jarraitu beharko nuela bizitza guztian, bere dendan; saltzen zuen generoaz gain, gozokiak, malbazuriak eta parrokiaarako kandelak prestatzen baitzituen. Lagundu beharra garbi ikusten nuen, zazpi anai-arrebak osatzen baikenuen aita Xanti eta ama Inixik sortutako taldea. Bestalde, gogoan dut orduan Oñatin egiten zen Gereka txokolatea banatzen zela gure dendatik herriko beste zenbait dendetara eta Azkoitia, Zestoa eta Errezilera. Lan horretan aritzen nintzen hutsik egin gabe, bidaiak txirringan eginez... Neure ofizioa aukeratzen denborarik galdu gabe. Baina aitortu behar dut, nire amak bere

nahia aipatu baino lehen, Donostiako Aurrezki Kutxa Muzizipalak sukurtsal bat ireki behar zuela herrian eta horretarako prestatzen nabilela, han lanpostu bat lortu nahian.

● Gutxi gora behera, inposatutako ofizio bat ikasi behar orduan. Aukerarik ba al zen ikasketak horiek egiteko Azpeitian?

Inposatu, edo niretzat komenigarria iruditzen zitzaien bidea erakutsi zidaten gurasok. Eta egia esan, nahiko pozik eta gogoz hasi nintzen lanean. Esan bezala, hamabost urte nituen, eta koadrilako beste lagun gehienek bezala, bazen garaia zerbaiti heltzeko.

Herriko Luis Ibarzabal jostunarekin eman nituen lehen urratsak, pare bat urtean bere esanetara izanik. Hasieran dena zaila ikusten nuen, baina gero nahiko ongi konpontzen eta langintza gogoko hartzen joan nintzen, ikasten ari nintzen heinean.

● Baina hasierako bi urteak ez ziren nahiko izango ofizioa ondo ikasteko.

Ezta inolaz ere. Soldaduzka Donostian bolidres egin nuen, eta ofizioa ikasten jarraitu nuen Alfredo Gandia jaunaren esanetara. Ez nuen, ez, erosotasun txarra aurkitu horretarako: izebaren etxean lo egiten nuen eta goizetan bakarrik joaten nintzen koartelera. Arratsaldetan, eta jai egunetan ere bai gehienez, ofizio ikasketak egiten jarduten nuen. Hiru urte eta erdi egin nituen. Baina konturatu nintzen nire ofizioa ondo ikasteko beste zerbait egin beharrean nintzela. Konfekzio eta ebaketa ikasketak egitea gelditzen zitzaidan artean, eta Bartzelonara joan nintzen, bi hilabetez akademian ikasketak egiteko.

● Jaso ditugun datuen arabera, hogeita bat urte gertu ikasketak amaitu zenituen. Eta lanean hasteko garaia iristean zer?

Hori zen nire nahi bakarra, baina lantegi egoki bat izatea benetan zaila zen. Ezin nuen lehen unean lokal bat edo etxebizitza bat erosi. Nire arreba Mertxek eta bere senar Jesus Gesalagak Irintzaile deituriko etxeko bigarren solairuan zuten etxebizitzan hasi nintzen lanean.

● Askotan entzuna dut, Inazio, gauzak azkar ahazten zaizkizula, baina egin beharreko galdera da honokoa: norentzat egin zenuen lehenengo janzkia edo trajea?

Ezin dut hori ahaztu. Lehen trajea koadrilako Joxe Mari Unanueri eginikoa izan zen, eta prezioa ere gogoan dut: 1.750 pezeta, beharrezko tela nire kontura izanik.

● Gaur egun diru horrek huskeria dirudi, baina orduan traje bat egiteko diru hori lortzea ez zen oso erraza, ezta?

Irabazia ere nahiko huskeria zen... Baina, denbora bat igaro ondoren konturatu nintzen amak aukeratutako bidea egokia zela, gero eta lan gehiago sortzen baizitzai-

Bitxikeriak

● Jostun ofizioan Inazio Urrestillak daramatzen ia 44 urtetan hainbat pasadizo gertatu zaizkio, gehienak dendan. Ondorengo hau bezalakoa: "Behin emakume bat anaiarentzat alkandora bat behar zuela esanez agertu zen eta aukeratu ezinean gelditu zen; lasai etxera eramateko esan nion, eta bost alkandora hartu zituen. Bueltan anaia bost alkandorekin gelditzen zela (!) esanez etorri zen. Ohitura dugu generoa etxera eramaten uztekoa, baina ez da beti erantzun bera jasotzen". Beste behin, emakume batek, larunbat batean, senarrari erakusteko bi alkandora eraman zituela dio Inaziok "eta biak astelehenean bueltatu zituen, ez zitzaizkiola gustatu esanez. Neuk ikusi nion soinean senarrari igandean beraietako bat... Dendarik ireki ez banu hobe larunbat hartan!".



“ Hamabost urte nituela, amak esan zidan Arantzazuko Andre Mariak esan ziola niretzat sastre ikasketak egokiak zirela”



UMOREA GALDU GABE. Burua bapo zurituta du Inazio Urrestilla *Lapatx* ezagunak, baina umorerik ez du galdu urteak igaro ahala. Koadrilan ere berdina zen gaztetan. Edonor zirikatze-ko aparteko adurra duela esango genuke. Aldaketa bakarra zera da: hamabost urte zituenean haren amak aukeratutako ofizioaren ezaugarritzat oraindik ere zintzilika duela lepotik gehienez metro horia... Galtzen ari den ofizioaren ezaugarria. Herriko azken gizonezko jostuna da bera, seguruenik.

“ Herriko Luis Ibarzabal jostunarekin egin nituen lehen urratsak, pare bat urtez haren esanetara izanik”

“ Lehen trajea koadrilako Joxe Mari Unanueri eginikoa izan zen, 1.750 pezeta kobratu nizkion, eta beharrezko tela nire kontu”

dan. Lanaren poderioz lortu nuen zerbait egokitzea. Arrebaren etxean pare bat urte egin eta lantegi egoki bat prestatzea erabaki nuen. Zerbait arriskatu beharrean aurkitu nintzen, eta etxebizitza bat erostean sortzen diren arazoetan sartu nintzen. Gaur egungo milioirik ez zuten eskatzen, baina, noski, diru sarrerek ere proportzio berean ziren. Zirt edo zart, etxebizitza handia behar nuen, bertan bizi eta lantegi erosoa izateko eta horrela erosi nuen Harzubian, handik eta hemendik dirua lortuta.

● **Eta etxebizitza berriari eusteko urte gogorrek igaro behar seguruena...**

Muga gabeko ordutegia lanerako etxearen erosketari buelta eman bitartean. Zorte ona izan nuela aitortu behar dut, lan asko sortu zitzaidan-eta, laguntzeko eta eskareiei erantzuteko bi neska hartu nituen. Goizeko ordu bata edo ordu biak ia egunero, lanari uzterako... Eta nolako lana gainera askotan! Jantzki bati probetxu handiagoa ateratzen baizitzaion: nahikoa da esatea ez zirela gutxi izaten buelta eman eta berriro josten ziren trajeak; aitarren jantzki edo trajea semearentzat egokituz... Horrelakotan ikasitako guztia beharrezkoa eta askotan gainera gutxiegi izaten zen.

● **Eta etxebizitza batetik denda izatera azkenean.**

Harzubiko etxebizitzan sei urtez aritu nintzen lanean, eta garbi ikusi nuen bezeroei ongi erantzun eta berriak aurkitu nahi banituen, derrigorrezkoa nuela lokal bat izatea. Jositako arropak erostearen moda ere gero eta nabariagoa zen, eta alde horretatik ere zerbait eskaini nezakeen nire ofizioa alde batera utzi gabe. Beste abentura baten sartu nintzen 1969an; Pepe Irintzailek salgai jarri zuen, Erdi kalean, aurrez estankoa izandako 56 metro karratuko lokala. Bera erosi nuen, metroko garaiko hogei mila pezeta ordainduta. Beranduagokoak dira gainontzeko aldaketak.

● **Ezkontza ordurako guztia abiada bizian eginez orduan?**

1970ko irailaren 5ean ezkondu nintzen, eta gogoan dut oraindik, dendako lehen eskaparetea arreba Mertxek egokitu zuela, ondorengo guztiak nire emazte Juanik prestatu baditu ere.

● **Denda zabaldu zenuenean jostun ofizioa alde batera utzi al zenuen?**

Ez, ez... 1992ra arte egin dut lan nire ofizioan, ikasitako guztia praktikaturik. Azken trajea, urte horretan egin nuen Epi Larrañaga herritararentzat; baina ez lehenengoaren prezioan, 69.000 pezeta kobratu bainizkion. Ordutik ere nire ofizioa lantzen jarraitzen dut, baina ikasitako guztia praktikara eraman gabe, dendan saltzen ditugun jositako arropak ebakiz eta egokituz bezeroentzat. ●

amuko zubitik Mikel Arregi



IRAGANETIK HASITA

Euskaldunok memoria eskasa dugula esan ohi da. Baina, komeni da tartean behin buruari buelta batzuk eman eta atzera begiratzeari. Izan ere, etorkizuna oparoa izan dadin, iraganetik ikastea bezalakorik ez dago. Azken lauzpabost urteotan Azpeitian gertatu direnak (edo ez direnak) ditut buruan.

Aukera paregabea izan arren, herria guztiz euskalduntzen hasteko parada galdu dugu azken urteotan. Herri dena bere baitan hartuko zukeen euskalduntze plan bat martxan jartzekoa zenean (alderdi politikoen eta euskalgintzaren babesarekin), beste plan batek euskararen aldeko indarrak banatu zituen.

Aukera paregabea izan arren, Azpeitian ez dugu oraindik kultur etxe edo gunerik. Udalak eskatuta egindako ikerketa soziologiko batek kultur etxe baten beharra adierazi arren, Azpeitiko kultur talde guztiek hala eskatu arren, erakundeek Basazabalen diru pila bat gastatu arren, oraindik ez dugu kultur etxerik.

Lauzpabost urte pasatu badira ere, azpeitiar

gazte batentzat etxebizitza eskuratzea mirari baten parekoa da. Etxe mordoxka egin da, baina etxebizitza horiek ez diote herriko premiari erantzuten.

Lauzpabost urte pasatu dira jada, eta Euskal Herrian bezala hemen ere bake iraunkor baten aldeko pausoak emateko aukera paregabea izan genuen arren, alferrikaltzen utzi genuen. Hemen ere ez genuen sortu *Lizarragarazi Txiki* indartsurik. Han goian Otegik eta Egibarrek zer esango zain egon ginelako hemen ere, lo. Baina Espainia eta Frantzia ez daude lo. Eta orain *Egunkaria* kendu digute.

Iraganetik ikasteko aukera dugu. Lauzpabost urteotan lortu ez duguna datozen urteetan lortzeko aukera dugu. Ordea, bakoitzak dagokiona egin behar du. Euskara normalizatu nahi bada, herri osorako plana denon artean egin behar da; euskal prentsaren alde egin behar da, euskal kulturaren alde egin behar da. Etorkizuna oparoa izan dadin, iraganetik ikastea bezalakorik ez dagoelako.

azketako ude Kepa Susperregi



AFRIKAN DAGOEN LAGUN BATEN BIZIPENA

Duela hilabete pare bat, gure arteko egunkari batean, misiolariari eskainitako artikululu bat irakurtzeko aukera izan nuen. "Misiolarien erreleboa umezurtz" zuen izenburua. Martxoan Elizbarrutiko Misioen eguna ospatzen dela-eta, "idatzi beharreko artikulutxoak gai horri eskainiko zioat", pentsatu nuen.

Asmo horrekin nintzela, Afrikan urte batzuk daramatzan lagun baten eskutitza jaso nuen duela egun gutxi. Bere bizipenak hunkituta utzi ninduen. Horregatik, berari eskainiko diot nire txoko hau... Honela dio:

"Denbora luze bat egon gara telefonorik gabe: lehen Telecom genuen eta orain Comatel jarri digute; eta noski, Angolan horrelako aldatketak egiteko *denbora* behar izaten da.

Hori gutxi balitz, hilabete pasa daramagu argi-indarrak gabe. Guk behintzat generadorea jartzen dugu (gasoilaz erabiltzen dena),

baina, adibidez, gau guztia ezer gabe, 30 gradurekin gelan, eta gorputz guztia *sarpulidoz* beteta, lorik ezin eginda. (Guzti hau zuek animatzeko).

Eta hori gutxi balitz, duela hiru egun hasi ziztaigun ura etortzen etxera. Gure depositoa azkenetan zegoen, eta kamioi zisternari deitzekotan ginen, baina Jainkoari esker, aberia konpondu dute eta orain ura badugu: ze gauza ederra den ura!

Ba, horrelaxe gabilta benetako garizuma fisikoa eta psikikoa eginez. Igandean ere paludismoarekin geunden beste apaiza eta biok. Ni onera etorri naiz, baina besteak jota jarraitzen du. Hemen gaude, baina gure gorputzak ez daude honetarako eginak. Beltza izan beharko nuke. Gainontzeko probintziak gurea baino freskoagoak dira, batzuk hotzak ere bai. Txarrena gurea, eta.... Zer egingo dugu ba?"

puntie ateaiez

Enekoitz Esnaola

HEMEN

Hemen euskaldun izatea bezalako gudaririk ez dago.

Hemen euskaraz irakurri eta euskaraz idaztea bezalako iraultzailerik ez dago.

Hemen euskara indartzea bezalako indar politikorik ez dago.

Hemen ez dago euskara adinako desafiorik inperio zurrupariaren aurka.

Hemen ez dago euskara adinako askatasunaren aldeko itxarobiderik".

Bitoriano Gandiaga.

Hemen, Azpeitian, *Egunkaria*-k 300 irakurle besterik ez zeuzkan. Gudari gutxi.

Hemen antzerki talde amateurren aitzindarietako desagertu egin da: Antxieta. Iraultzaile bat gutxiago.

Hemen Udalak ez du konstatzen euskalgintzarekin plan estrategikoa zuzentzeko. Indar gutxiago.

Hemen zatitu egin zen ikastola. *Inperioa* txikituz.

Eta hemen gero, gainera, esango dugu itxarobidea dugula...


bota bertsue

Leire Ostolaza

ERDI KALEA

Erdi kalea hiltzen ari da Askotan entzunak gera. Etxe zahar eta azpiko dendak omen datoz goitik behera Eta Udalak hor somatu du etxe berrien aukera Ta berriz ere edozein moduz doaz gauzak egitera. Erdi kalerik ezin berpiztu dendari hoi en kalterak.

Oinkari hortxe ikusi dugu hogeitazortzi urtetan ta etxeokoe esan diote ezin dula segi bertan jarri araziz Erdi kalean dagoen beste batetan. Zure ahalegina eskertzen dugu zortea opa benetan dendak zigortuz bizirik ez da izango kale zaharretan



'EGUNKARIA'-KOAK.

Garai zailak dira, baina *Egunkaria*-ko langile azpeitiarrek ere konpromisoa erakutsi dute berriro beste *Egunkaria* bat egiteko, lehengo 11 puntuetan oinarrituta; gaurkotasuna dutelako.



MARATOI ERDIA.

Asko poztu izango da Diego Garcia zena, azkeneko Azkoitia-Azpeitia maratoi erdian mila lasterkalaritiki gora aritu zirelako. Oso giro ederra jartzen dute antolatzaileek proba horrekin.



TXAKUR KAKA.

Bada kigu txakurrek ere nonbait egin behar dutela zera hori, baina ez da atsegina zapaldu eta hanka azpian etxera eramatea. Jabeek kontu egin dezatela zakurren egin beharrekoak.

uztarria.com

GAIA: Uztarriaren web guneko 'albisteen' atalean Ikasberrin presoen eskubideen alde egindako baraualdiaren inguruan sesioan dabilta kide batzuk. Hona hemen gutun horietako sorta bat:

Politika ikastolatik kanpo

Ikastolan politika? Ez dakit. Ono deritzot errealitatea isladatzen duen benetako informazio bat erabili eta jendeari gertatzen dena jakin araztea. Baina, ez gaitezen hasi eskoletan ere politikarekin zerikusia duten ekintzak egiten. Eskuetatik alde egingo digu guztiak eta. Ba al dago zerbait ederragorik, norberak informazio zabal eta era guztietariko jaso ondoren, ideologi garbi batekin doan bidea hartzea baino? Mesedez, utzi guzti hau eta ikas dezatela orain ikasi behar dutena, geroan ikuspegi landu bat izan dezaten!

Mila esker.

Zein ongi

Sentitzen ikasiz

Iniziatiba, iritzi propioa, euskal nortasuna, jakituria propioa. Ikastolak garai bateko errealitate gordin haien ondorioz sorturiko mugimenduak dira, errealitate politiko eta sozial baten ondorioz sortutakoak. Gaur egun go errealitatea ez da berdina, baina ezta guztiz desberdina ere. Ikastolak dira gaur egun gure euskal izaera guztiz eta bere osotasun batean lantzen eta landu dezaketzen zentru bakarrak. Eta ikastolak ez dituzte horrelako ekintzek politizatzen, horrelako komentarioek baizik. Gazte aktiboak eta iritzi propioz jantziak hezitzen direla ikastolan? Oso ondo. Eta zer ikasi behar dute orain? Edukiak, ordenagailua erabiltzen? Batuketak egiten? Eta zergatik ez sentitzen?

Ez horregatik

Gazteek moda jarraitzen dute

Beste ikastetxe batzuetan ere egin izan da horrelako ekintzarik. Niri ondo iruditzen zait baraualdi bategitea, jakiteko munduan pertsonak nola bizi diren eta bereziki, Euskal Herriko egoeran. Baina zenbatek bukatuko dute baraualdi hau? Nire garaian Iraurgin egin zen barauladi bat, etabi lagunek bakarrik bukatu zuten! Gazteek moda jarraitzen dute, baraualdia egin behar dute *guaye* delako presoen alde egitea, eta bere lagunek hala egin behar dutelako. Ez dut sinesten iniziatiba propio batetik egiten dutenik... Pasatzen dena da beraien baino zaharragoek horixe egin dutela, eta beraiek uste dutela onena dela. Ez dago munduan

manipulatuta ez dagoen gazterik. Gazte hauek Madrilan jaio izan baziren, *ultrasur*-ekoak izango ziren. Hori da eta han *guaye*.

Manipulazioa

Politika ikastolatik kanpo

Eta gurasook zer gara bada? Dirua egiteko makina bakarrik? Non dago gurasoen iritzi propioa, euskal nortasuna, eta abar. Berriketa ugari eta gure semeongan utzi *axaleko borrokillak*. Hau, ez da benetako bidea, balio duena aldarrikatzen duelako: ezer ere ez. Bidea gurasoengandik etorri behar du, kaleko ekintzetatik. Lana eta ikasketak amaitu ondoren, sentsibiltatea duenak aukerak sortuz. Alferrik da lanean greba egin eta gero *aerobik* edo *footing* egitera joatea. Alferrik.

Eta gurasook

akullue



Leire Ostolaza

EGUNERO,
'EGUNKARIA'-REN
ALDE

Euskaldunon *Egunkaria* ixtea otsaileko kontua izan zen arren, *Egunkaria*-ren falta egunerokoa dugu. Orduan, martxoko artikulua idatzi eta bidalia nuen, eta arantza atera gabe ezin gera nintekeen.

Makina bat kexu entzun dut, han eta hemen, euskarazko egunkari bakarra itxi eta bertako langile zenbait atxilotu eta torturatuak izan direlako. Eta beste zenbait gehiegikerien aurrean kalera irteten ez duen jendea ere izan zelako Donostiako manifestazio erraldoi hartan.

Makina bat aldiz entzun dut azken hilabete honetan: "Ene! Zertaraino iritsi behar dugu? Lasterizingo dugu euskaraz hitz egin ere!". Makina bat aldiz ikusi dugu okindegi edo kioskoetan *El Diario Vasco* mendi izugarri bat *Egunkaria*-ko lau aleren ondoan, eta gertatu dena gertatu ostean ere lehen mendia zenak mendi izaten jarraitzen du, hiztun euskaldunak gehiengo zabala garen herri honetan.

Makina batek azalduko du, berriz ere, *Egunkaria*-rekiko elkartasuna, baina ez da egunkari bat hitz hutsez bizirik mantenduko; beraz, euskararen eta euskal prentsaren alde zerbait egin nahi dugunok egin dezakegun onena egunero *Egunero* erosi eta irakurtzea da.

galdeiez

Zer iruditzen zaizkizu herri sarreretan ibilgailuentzat jarrita dauden koskak?



Aitor Mendizabal

(langilea)

"Ez zait batere ondo iruditzen. Nire ustez kalte handiagoa egiten dute jartzen dituzten koska puska horiek. Hala ere, gure herrian, nahiz eta gero eta gehiago jartzen ari diren, beste herri batzuetan gutxiago daude. Auto gidarientzat oso kaltegarria dela pentsatzen dut, askotan ez zarelako ohartu ere egiten".

Arantxa Agirrezabal

(langilea)

"Niri oso ondo iruditzen zait

zer diyo?

1977ko BELAUNALDI GALDUA

Azpeitiko *Jaiak* liburu mardula dugu herrian, gure agintariak ohiturik gaituen erara egina da: handia, elegantea, eta haren bolumena ikusita, gure historia guztia bertan izango zelakoan nengoen.

Azken bi urte hauetan danborradak izan dituen kontuak ikusita, errepaso bat eman nahi diot aipaturiko liburu horri.

Zaila da dena jasotzea, baina 1977ko eta 1978ko danborradei buruz ondorengoa dio: "Danborradak bere garapenean aurrera jarraitu zuen. Ez zen aparteko berrikuntza edo berezitasunik gertatu".

OROIMENARI TIRAKA. Argazkietan begira ere ibili naiz, ezer ez topatu eta, nire oroimenari tiraka jardun ondoren, honakoa irten eta aditzera ematea pentsatu dut: Franco hil zen garai hartan, Azpeitiko gazteok bagenuen biltzeko lekua Parrokiko lokaletan; taldeka biltzen ginen, nahi genuenean. Bileraz bilera, dena eztabaidan jartzen genuen. Talde politiko baten alde jartzea ez genuen ontzat hartzen, "*correa de transmisión*" ezin zen izan. "Kokoa ez dik inork jan behar", genioen elkarri. Pentsatzea librea zen. Gainera, "gizartearen aldaketak herriak berak bere barrutik egiten dizkik", *iluminaturik* ez zegoen askatasun bidea jorratuko zuenik. Bakoitzaren eguneroko eginak zuzentzen zuen gure etorkizuna.

Land rover berdeak beti gure kaleetan ziren orduan, bortxa ez genuen onartzen. Bortxa zen arerioa. Manifestazioetan nahi genuena oihukatzen genuen.

Oroitzen naiz, soldadutzako *talla* egunean,

gazte talde batek, erdi kalean polizia *sekreta* pare bati nola kantatu genion, eskua fatxa erara altxatuz Errepublikara garaiko anarkisten kanta: "*Viva la FAI-FAI-FAI... lutzemos hermanos contra los cristianos y los requetes. Si los curas y los frailes supieran la de ostias que les vamos a dar subirian al coro gritando LIBERTAD, LIBERTAD...*". Guardia zibilak agertzen zirenean, ihes egiten genuen beste leku batean agertzeko.

Agertzeko eskubidea erabiltzen genuen. Inori ez genion eskatzen zer aldarrikatu. Baina denon oihu bat zen "As-ka-tasuna...", txaloekin lagunduz. Eskubideen babesle izan nahi genuen...

DANBORRADAN. 1977. urtean, Herri-zaleak elkartearen danborrada osatzeko talde baten beharrean aurkitu zen. Agian, Pelotazaleak taldeak utzi egin zion danborradan irteteari. "Nola liteke horrelako aukera bertan behera utzi eta tradizioa galdu?...". Pentsa genezake orain. Bada, parrokiko gazteengana jo zuten, danborrak beste herri batetik ekarriko zirela eta ea taldea osatuko al genuen galdezka.

Galtza urdin, alkandora zuri eta txapela izango ziren gure danborradako jantziak, eta ikurrina denona zenez, bandera berriak ginena agertu behar zuela erabaki genuen, eta Gazte Taldea izenpean atera ginen.

Musika banda eta guzti jo genuen kaleetan zehar, Plaza Nagusian; bizikoa izan zen. Ikurrina egun horretan legeztatu zen, eta eskuz esku pasatuz eta astinduz ibili zen. Herria horrela izateko, alkatea ere apartekoa zela pentsatzen

UZTARRIAREN WEB ORRIKO INKESTA

1. GALDERA: Herri- ko zein kirol talde jarraitzen dituzu?

- **Futbolekoak:** %3
- **Saskibaloikoak:** %2
- **Atletismokoak:** %0
- **Besteak:** %37
- **Inorez:** %58
- **Denak:** %0

koskak jartzea baina pasatu gabe. Bestela, jendea autoan azkarregi ibiltzen da herri barruan eta horrela, arreta handiagoarekin eta polikiago joango direla pentsatzen dut”.

Mikel Odriozola

(ikaslea)

“Niretzat oso gaizki dago.

Badakit kontrolatzeko asmoarekin jartzen ari direla, baina egia esan, ez dut uste egokiena koskak jartzea denik. Eta okerreña da autoarentzat kaltegarriak ikusten ditudala horrelako koska puskak jartzea. Nire ustez, autoak azkar ibiltzen di-

ren arazoari beste irtenbide batzuk aurkitu behar zaizkio”.

Miren Mendia

(langilea)

“Egia esan, nahiko ondo iruditzen zait. Hala ere, herrian gehiegi jartzen ari direla uste dut eta horrekin ez nago batere ados. Ondo iruditzen zait jartzea, horrela jendea makalago ibiliko delako eta kontu handiagoa izango duelako herri sarreretan, baina pasatu gabe. Herriaren kasuan, uste dut gaur egun koska gehiegi daudela. Autoan zoazela edozein bazterretan aurki ditzakezu koska horiek”.

Iñaki Aranbarri

(langilea)

“Ez nago batere ados, ez zait ondo iruditzen. Beharbada batzuk jartzea ondo deritzot, baina uste dut gehiegi jarri direla, eta oraindik ere jarriko dituztelakoan nago”.

Mari Jose Goenaga


(langilea)

“Ados nago koskak jartzeko erabakiaekin. Egia esan, autoak azkar ibiltzen dira eta herrira sartzerakoan pixka bat polikiago ibiltzeko ondo dago”.

“ Azpeitiko gazteok bagenuen, taldeka, nahi genuenean, biltzeko lekua Parrokiko lokaletan”

“ Agertzeko eskubidea erabiltzen genuen. Inori ez genion eskatzen zer aldarrikatu”

“ Askatasuna, pertsonaz osaturiko taldeak sortzen duen une bat dela pentsatzen dut”



dut gaur egun. Udala, lana bakarrik zen garai hartan hura lortzeko.

Baina historiak ez du horrelakorik jasotzen, dena gezurra da agian, gaztetako puzker utopikoren baten hondakin nahastua. Baina nik oraindik ere gogoan ditut lokal aurrean jo genituen atabalkada haiek, bakoitzak nahi zuen moduan jo zituenak. Azpeitian entzun diren askatasunezko danborkada bakarrak izan ziren. Hurrengo urtean danborradan joko ote genuenentz begiratu gabe.

ASKATASUNA. Nolatan puskatu genuen *gure artekoa*? Askatasuna, pertsonaz osaturiko taldeak sortzen duen une bat dela pentsatzen dut. Orain, begira jarrita... Danborrik puskatu gabe... Ondoren sinesmen zaharrak, jantzi berriz agertu ziren... sendiak apurtzen... Eta gaur egungo gazteek ezin dute imajinatu 'askatasuna'.

Pako Iriarte

hausnartzen

GAIA: 'Maiatzeko udal hauteskundeak'. Zein da azken urteetako balorazioa? Nolakoak izango dira bozak? Zilegitasunik ba al dute ezker abertzaleak ezin badu aurkeztu?...

Oharra: hurrengo alean ere eztabaida hau plazaratuko du Uztarriak; beraz, idatzi nahi duenak bidali artikulua aldizkariaren helbidera

HAUTESKUNDEETARA KOALIZIOAN, BAINA UDALEAN ALDERDI BAKOITZA BERE NORTASUNAREKIN

Orain lau urte, udal hauteskundeen ondoren Azpeitiko EAK EAJrekin udal gobernu akordioa izenpetu genuen. Lau urteotan lan ugaria eta egokia egin da udal mailan. Zinegotzi bakoitzak bere arloan gogotik jardun baitu lanean: kulturean, ingurumenean, kiroltan, jaietan, baserrian... Aurkitu dituzten arazoei irtenbide egokiak —gizartearen eskaerak aintzat hartuta— ematen ere saiatu dira. Ezin dugu baztertu gure indarra mugatua izan dela. Eta bidean hainbat proiektu gelditu dira egin gabe, eta datorren legegintzaldian egin asmo direnak, hala nola: babes ofizialeko etxebizitzak eta prezio mugatukoak egin, kultur etxea, ingurumen arazoak konpondu, gizarte zerbitzuen inguruan herrian ditugun proiektuak aztertu, herriaren antolaketa datozen 15-20 urteei begira egin...

Maiatzean udal hauteskundeetara Azpeitian EAJrekin batera koalizioan aurkeztuko da EA. Baina kontuan hartu behar da EAK bere nortasuna nahi duela. Azken hauteskundeetan eraso izugarri bat zetorkigula eta horren aurrean zerbait egin behar zela ikusi genuen; komenigarria eta egokia iruditu zitzaigun EAJ eta EA elkarrekin joatea —tartean D'hont legea eta daudelako—, indarrak batzeko. Egoera berezia zegoen orduan, eta orain ikusi da oraindik ere egoera horrek jarraitu egiten duela.

Nahiz eta eztabaidak eduki alderdiaren barruan, azkenean komenigarria iruditu da egoera honetan elkarrekin joatea eta indarrak biltzea. Indar handiagoa ikusten genuelako batera joanda. Baina horrek ez du esan nahi herri mailan eztabaidak ez direnik egon, herri bakoitzeko egoera oso desberdina baita: herri asko zebiltzan bakarrik joatekotan eta beste batzuek, berriz, komenigarriagoa ikusten zuten batera joatea. Alderdian orain dela lau urtetik iritzi bat zegoen: abertzaleen gehiengoak arriskuan dagoen lekuan batuta joan behar dela, arriskuan ez jartzeko abertzaleen nagusitasuna, eta arriskurik ez zegoen lekuetan bakoitza bere bidetik joan zitekeela. Baina azken kasu honetan ez du esan nahi gero adostasunera iristerik ez dagoenik. Azpeitian, herrian eta baita gure alderdikideen artean ere, beldur, kezka eta zalantza hori ikusten genuen eta horren aurrean behar bada indarrak batzea komeni zela iruditu zitzaigun.

Gaur egun alderdiaren barruan ere badaude bi joera. Joera nagusia da ahal den heinean gorde egin behar dela alderdi bakoitzaren nortasuna; eta komeni denean joan beharko da elkarrekin eta beste batzuetan ez. Beste joera bat izango litzateke CIU bat egitea, gutxi gora-behera. EAKo batzar nagusiak erabaki zuen aurtengo egoera berezi horregatik elkarrekin joan behar genuela.

Eta azpeitiarrak batzar nagusiak emandako agindu hori bete dugu.

Behin erabaki genuenean EAJ eta EA elkarrekin joango ginela, berehala hasi ginen hizketan; oso giro bikainean eman ditugu negoziaketak. Bakoitzak bere izenak proposatzeko aukera hartu eta udaletxean, gutxi gora-behera, zein batzorde egon daitezkeen eta zeini eman behar zaion garrantzi handiagoa erabaki genuen. Oraingo lana programa egin eta hauteskundeetarako aurkeztea da.

UDALEAN GURE NORTASUNA. EA eta EAJ koalizioan joango bagara ere udal hauteskundeetara, alderdi bakoitzak bere nortasunarekin jokatu du Udalean. Eusko Legebiltzarrean bezalaxe, nahiz eta elkarrekin joan, gero alderdi bakoitzak bere taldea izango du Udalean. Batuta joatea erabaki dugu eta udal programa elkarrekin egingo dugu. Orain batera goaz eta batera joanda lotuago gaudela esan genezake. Jakina, horrek atzetik bi alderdietako kideek osatutako batzordea izango du, jarraipena emateko, eta konponezinik balego batzorde horretara eramango da. Sor litezkeen liskarrak eta desadostasunak bideratzeko balioko du batzordeak.

EZKER ABERTZALEA HAUTESKUNDEETAN. Gertatzen ari direnak ikusita, Batasunaren ilegalizazioa, Espainiako Alderdien Legea eta abar, zalantzak guztoi sortzen zaizkigu. Guk herri mailan ez dugu aztertu gai hau. Horretaz erabaki bat hartu behar bada edota hartuta badago, alderdiaren goi mailak esan beharko du, herrietan alderdiak zein jokaera hartu beharko duen, zer egin, onartu... Erabaki hori goi mailakoa litzateke batik bat. Dena den, gure ustez ezker abertzaleak hauteskundeetara aurkezteko aukera badu, eta eduki beharko luke gainera. Baina ikusita Euskal Herrian zer egiten ari diren eta noraino iritsi den gaur egun dagoen egoera, edozer gauza gerta liteke; edozeini, gainera.

Ezker abertzaleko plataformei Alderdiaren Legearen bitartez aurkeztu ez balieke utziko, esan genezake demokraziarik ez daukagula hemen, hori garbi ikusten dugu. Baina aurrez esan bezala, goitik hartuko litzateke erabakia kasu horretan, batik bat lan hori alderdiaren goi mailari baitagokio.

Manuel Unanue (Azpeitiko EAKo lehendakaria)



BADUZU NON AUKERATU

Garmendipe Kalea, 1 20730 Azpeitia Gipuzkoa
Tel. 943 15 71 15

gotain



gotain
LURRINDEGIA

Erdikalea 3. 20730 Azpeitia Tel. 943 814 35

OHARTU GABE UDABERRIA ETA UDA GAINEAN DIRA, ETA...

NOLA SENTITU NAHI DUZU?

Edertze plana dugu zuretzat

NORBANAKO AHOLKULARITZA

- ✓ estetika orokorra
- ✓ depilazioa
- ✓ mikropigmentazioa
- ✓ solariuma
- ✓ tatuaiak

Irudian jakitunak gara

JONE - MAIKAR
estetizista

Enparan kalea, 15 - 1 Tel. 943 81 38 98

UDABERRIKO PROMOZIOA

GORPUTZ ETA AURPEGIKO
TRATRAMENDUETARAKO BONOAK

%20ko deskontua

apirilean eta maiatzean

JONE - MAIKAR





Euxebio Beloki eta Beni Odriozola, Xoxoteko aterpezain berriak martxoaren 29an hasi ziren lanean Xoxoten. / NEREA ARANBURU

ATERPEZAIN BERRIAK

Martxoaren 29an ireki zituen ateak Xoxoteko aterpeak, bi urtez itxita egon ondoren

Nerea Aranburu

Xoxoteko aterpea berriro irekita aurkituko du bertara hurbiltzen den mendizaleak, berritu ondoren. Aterpeak aldaketa batzuk izan ditu, tartean, aterpezain berriak: Euxebio Beloki azpeitiarra eta Beni Odriozola azkoitiarra. "Guri oso aukera polita iruditu zitzaigun, aterpea herrian bertan dagoelako, eta gainera, Xoxoteko aterpea delako", dio Benik. Azken sei urteetan Lintzako aterpean (Pirinioetan) izan dira biak lanean. "Orain sei urte, urri aldera, Lintzako aterpea hartzeko aukera izan genuen. Gu beti hara joaten ginen, mendia gustuko dugulako; eta orduan aterpean zegoen pertsona nazkatu egin zenez, guk hartu genuen", dio Belokik. Hala eta guztiz ere, ez dute Lintzako aterpea utziko. "Beste urte eta erdi gera-

“ Jendea lo egitera joateko ohitura bultzatzea da gure asmoa, asteburua bertan igarotzea ”

Euxebio Beloki
(Xoxoteko aterpezaina)

“ Mendian jarraitzea zen gure asmoa, eta kasualitatez aukera hau ateraz gaitu ”

Beni Odriozola
(Xoxoteko aterpezaina)

tzen zaigu. Behin hori bukatzean ez dakigu zer gertatuko den, eta Xoxoteko aukera izatea guretzat ideala izan da. Urte bat falta zaigulako ez dugu Lintzako utziko, eta bi aterpeak zaindiko ditugu”, dio Belokik.

Beniren esanetan, “garbi genuen lanean mendian jarraitu nahi genuela, eta kasualitatez aukera hau sortu zaigu”. Jada lanean hasiak dira Xoxoteko aterpean —martxoaren 29an hasi ziren—. “Espero dugu jendea animatuko dela aterpera etortzera”, diote biek. “Gure asmoa eta nahia asteburuetan jendea gora igo eta bertan lo egiten gertatzea da; hau da, asteburua bertan igarotzea. Jendea Xoxotera lo egitera joateko ohitura bultzatu ahi dugu. Astegunetan, berriz, ikusi egin behar martxa nola doan”.

Lehen bezala, eskoletako taldeak aterpera etortzeko aukera ere lotuta dute Lagun Onak Mendi Bazkunakoek. ●

udal erabakiek

Azpeitiko Udalak Izarraitz mendikatean lurrak erosi ditu berriro

Azpeitiko Udalak Izarraitzeko beste lurzati bat erosi berri du. Lehendik ere gaur egun Xoxoteko aterbea dagoen lur zatia eta inguruak erosita zituen hamar etxe jaberri. Eta orain, 37 lur jaberekin zortzi urte negoziatzen jardun ondoren, beste lur sail batzuk erosi ditu. Jose Mari Bastida alkatearen esanetan, "lehen lur sail hauek herri-lurrak ziren, eta orain berriro hala izango dira, udalak erosi baititu". 60 milioi gastatuko dira lur sail hauek erosten.

San Agustinpeko auditorioa egiteko zain

San Agustinpeko auditorioaren lanak hasteko lanak esleitzea falta da. Lanak egingo dituen enpresa aukeratzea Espainiako Gobernuari dagokio, horretarako dirulaguntza eman baitu. Berez Espainiako Gobernuari bazegokion ere proiektua egitea, Azpeitiko Udalak egin zuen, eraikuntzaren beraren egoera txarra zela-eta; ondorioz, lehen faseko lanak udalak esleitu zituen eta dagoeneko bukatuta daude: teilatu berria, udaletxeko berrikuntzak...

Epaitegiaren lekualdatzea aztergai

Azpeitiko epaitegiaren eraikuntzaren egoera txarra dela-eta, udalean leku aldaketa aztertzen ari dira. Azpeitiko epaitegirako beste leku batean egin asmo zen eraikinaren proiektua egin zen; ondorioz, eta urteak igaro ahala, eraikuntzaren egoera okerragoa da. Hau dela eta, Azpeitiko Udala gai hau aztertzen hasi zen. Bi aukera izan dira tarteko: lehen dagoen lekuan eraikin zaharra bota eta berria egin edota beste leku batetan egin. Oraindik erabakia hartzeko dute udal ordezkariak.

Hegoaldeko saihesbidea hobetsi da Diputazioan

Nerea Uranga / Azpeitiko saihesbidea egiteko lau proiektu ezagutarazi dira azken urteetan. Lehen biak Azpeitiko Udalak ezagutarazi zituen: hegoaldekoa (Lan-deta aldetik, Urrakirako bidegurutze ondok Azkoitira aldeko bidea hartzen duena) eta iparraldekoa (Izarraitzpetik Azkoitirako bidea hartzen duena). Ondoren Gipuzkoako Foru Aldundiak beste bi proiektu aukeztu zituen jendeau-rrean,

hegoaldekoa

• EZAUGARRIAK.

Foru Aldundiaren saihesbidearen hegoaldeko aukerak 5,1 kilometroko luzera du eta 31,1 milioi euroko aurrekontua.

2002ko ekainaren 13an: hegoaldekoa (Lan-detatik, gaur egungo errotondatik Azkoitia aldera egiten duena) eta iparraldekoa (Izarraitzen egingo zena). Aurkez-

penean bertan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide sailetik etorritakoek hegoaldeko aukera hobetsi zuten. Joan den martxoaren 25ean Foru Aldundiko diputatuaren Kontseiluak berriro hegoaldeko aukera hobetsi zuen. Iparraldeko aukerak ingurumenean "aldaketa handiagoa" eskatzen duela eta hegoaldeko aukerak garraioaren "joan-etorria errazten" duela esan zuen. •

Emilio Lopez Adan

gurien...

medikua eta idazlea

"Azpeitian nire ideiekin bat datorren izpiritua bizirik da"

Leire Larrañaga / Emilio Lopez Adan Beltza martxoaren 20an izan zen Azpeitian, Euskal Herria. Gaur eta Bihar hitzaldira etorrita. Hitzaldia, Argitu taldeak antolatu zuen, Pasaia sarraskiaren XIX. urteurrena dela-eta Kurro-ri eta Pelitxo-ri egindako omenaldiaren baitan.

• Azpeitira etorri zaren lehen aldia al da?

Ez, ez da lehen aldia. Horrelako ekitaldiak Azpeitian aspaldidanik antolatzen dira, eta ni askotan etorri izan naiz.

• Jendea bildu da ekitaldian...


Gehienetan jende asko bildu ohi gara. Aspaldiko lagunak ditut Azpeitian, eta uste dut hemen oraindik ere nire ideiekin bat datorren izpiritua bizirik dela. Eta hori garrantzitsua da.

• Gustura etortzen zara, beraz.

Oso gustura, bai.

• Hitzaldietarako soilik etortzen al zara?

Mendira ere etortzen gara. Esan dezaket badugula ohitura bat —urte guztietan egiten ez badugu ere— urtero Xoxoteko egunera etortzeko.





datua

● **BALDINTZAK.** Etxebizitza hauetako bat erosteko aukera izateko gehienez 45 mila euroko (7,5 milioi pezeta) eta gutxienez 9 mila euroko (1,5 milioi pezeta) irabaziak izan behar dira urtean.

Udal sustapeneko etxebizitzak egitear

Nerea Uranga/ Azpeitiko Udalak, alkatetzaren izenean Azpeitiko etxeetara bidalitako triptiko baten bidez, Udal Sustapeneko 75 etxebizitza egiteko asmoa azaldu du. Etxebizitza hauek Azpeitia Lantzen S.A.ren bidez egingo dira. Bost lekutan egingo dira, eta bi fasetan. Lehenengo fasean, zezen-plaza ondoan (29) eta Eliz

kalean (4) eta bigarren fasean, Goiko kalen (4), Enparan kalean (34) eta Erdi kalean (8) egingo dira.

Alde zaharrean etxebizitza zaharrak bota eta berriak egiteak zenbait denden leku aldaketa eragin du. Esaterako, Erdi kalean Oinkari oinetakoak dendak eta Axa Aseguroak-ek lekuz aldatu beharra izan dute, etxebizitza osoa Udalak erosi duelako. Oinkari dendak, aurrez Udalak kale berean erositako beste lokal batera pasatzeko aukera izan du, etxe zaharra bota eta berria egin bitartean. Beraz, alde zaharrean etxebizitza berriak egiteak zenbait dendari ondorioak ekarriko dizkio.

zer dago gaixki, zer sobran, zer faltan?



ERANTZUTEKO EPEA: Apirilak 22 (asteartea)

HELBIDEA: Uztarria, Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre; edo 227 posta kutxa (Azpeitia)

AKATSA ADIERAZI (idatziz edo boligrafoz):

IZEN-ABIZENAK:


TELEFONO ZENBAKIA:

IRABAZLEARENTZAT SARIA: Patxo Eduardo Berasategi harategiko arkume bat.

AURREKO ARGAZKIA...



...ETA SOLUZIOA



IRABAZLEA: Xuban



Xuban Uzkudun izan da 38. garai-
lea. Disdira bitxi dendako erosketa
txartela irabazi du. Argazkian, Xu-
ban Uzkudun bera —ezkerrean— eta
Disdira dendako jabe Asier Oiarza-
bal.

“Etorkizunean maratoi erdian korritzea gustatuko litzaidake, giroa desberdina delako eta asko gustatzen zaidalako”

Arkaitz Nogales
(lasterkalaria)



Arkaitz Nogales./ DV

“Azpeitia inguruan oraindik errepide politak daude auto lasterketak antolatzeko. Azpeitian, gainera, afizio eta maila ona dago”

Ricardo Tricio
(auto gidaria)

martxoko irudiye



BARANDALLAREN ALDE BARAUAN. Bautista Barandalla euskal preso politiko nafarra, gaixo eta larri dago espetxean. Haren askatasuna eskatuz, asteburuero 24 orduko baraualdiak egiten ari dira Azpeitiko eragileak, txandaka, Sindikatu Zaharrean.

motxien

‘Sartu’-ren zerbitzua berriro Azpeitian

Sartu erakundeak, etenaldi baten ondoren, berriro bere zerbitzuak eskainiko dizkie langabetuei eta lan bila da-biltzanei apiriletik aurrera. Lehen bezalaxe, Sindikatu Zaharrean izango du egoitza. Eta astean hiru egunetan egongo da irekita.

1.069 atleta; bete da Diegoren ametsa

X. Azkoitia-Azpeitia maratoi erdian, martxoaren 29an, 1.069 lasterkalarik hartu zuten parte. Beraz, Diego Garcia zenaren ametsa bete da: milako partaidetza gainditzea. 74 azpeitiarrek irten zuten; Xabin Aranaga izan zen lehen azpeitiarra. Azpeitiarren sailkapena osorik dago www.uztarria.com-en.



UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

- DBH
- BATXILERGOAK
- HEZIKETA ZIKLOAK

KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa z/g
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 85 21 74 / 943 85 2265
Fax.: 943 85 28 67
E-mail: azkoitia@urola.hezitek.net

Perdilegi, 2
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 15 02 28 Fax.: 943 81 16 94

Perdilegi, 3
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 81 26 65 / 943 81 37 70
Fax.: 943 81 66 20
E-mail: azpeitia@urola.hezitek.net



IZARRAIZPE
IRAKASKUNTZA ELKARTEA

AZPEITIKO IKASTOLA
KARMELO ETXEGARAI

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

Euskal Herria, 50
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA
(Gipuzkoa)

A maila: 18 urtera arte 1. saria



Silvia
Etxaniz

• DOINUA: Munduan libre bizi izatea
• NEURRIA: berezia

Gaia
JIPOITUAK,
MATXISMOA...?
EZ, MESEDEZ!

Hogeitabatgarren mendean gaude eta ezin eman buelta leku askotan emakumeak loturikan daude eta halare dute gizon aurrean zutik azaltzeko beta begiak malkoz beteta burkaz estali kopeta beraiek ere pertsonak dira merezi dute arreta gizonen maila berera heltzea da emakume hoi en meta.

Hainbat eta hainbat jipoitu daude mundu osoaren jiran emakumeak jotzen dituzte trapu zaharrak bailiran beldurturikan, lotsaturikan ezkutaturik maindiran guztia da ikusmiran gure planetaren biran esaten dute, baina eztaikit gauzak aurreratzen diran leno eztaikit, oain hola dira ta lenore hola ziran.

Gizonaren lan berdina egin eta kobratu gutxigo hori zergatik gertatutzen den nik galdetzen det aldiro honek ezin du hola jarraitu behar degu mailaz igo azkar edota astiro gogor, gogoz nahiz ez tiro gauza hau berriz eskatutzerik nik ez nuke nahi berriro ta ez badira gauzak aldatzen hemen ezta izango giro.

Postu askotan emakumeak ezin dute egin lana batzuen ustez andrea baita soilik bigarrenago ama ez pentsa arren jasan dezake lan gogorrenaren zama bizi osoan darama zorua jotzeaz zama gizonezkoa kaballeroa ta emakumea dama geroarekin bakarrik pentsa eta ahaztu iragana.

Aurrera bultzaz lortua dugu orain daukagun lekua baina oraindik ez diogunez bera gustua hartua aurrera joaz, gogor saiatuz igo dezagun postua eta hau utzi ahaztua zati txikitan moztua nere ametsa da ikustea gure helburua lortua hau da, moztuta: emakume bat libre eta askatua.

Gaurkoz nahikoa uste dut dela beraz, banoa uztera kontua hartu esan dudana da errealtate bera baina gauza bat jakin nahi nuke hor doa nire galdera: bizitza aldatuko ote da? ta erantzun airera hori inortxok ere ez daki baina badago aukera hau entzun denek ta kasu egin: guztiok berdinak gera!!

KONTZIENTZIAZIOA

Ernigarraitz Bertsozale Elkarteak, II. Bertso Idatzien Lehiaketa antolatu du III. Bertso Astearen baitan. Guztira 13 lan aurkeztu ziren paper lehiaketara

B maila: 18 urtetik gora 1. saria



Juan Mari
Odriozola

• DOINUA: Juana Bixenta Olabe •
• NEURRIA: berezia

Gaia
KONTZIENTZIA
GARBITZEN

Aurrean zaitut, ene amona dardarka etorria nauzu hona, urduri neronen ausardian, bete behar hau nun aspaldian, barren barrena, sentimentuen dantza herrena, muxu goxo bat, tori aurrena.

Ia sei urte, izango dira ez gaudela gu elkarri begira, esan ta galdetzeko hau pila hitzek biderikan ezin bila Ixilik hobe, nola zauden entzumenik gabe ohean luze, ahul ta suabe

Sartu zinduten, egoitza hontan, zergatik galdetu ohi det askotan, zuretzat hobe zela esanez, arrazoi merke asko emanez, geldiarazi,

gizartetikan baztertu kasi, entzuten zukan hori ikasi.

Mea kulpaa bat, berdin niretzat lehenago etorri behar nun behintzat Penetan denboraren galduza xeble kolpetik azalduaz, indulgentzia, dudan zama bai ote kentzia, garbi nahi nuke kontzientzia.

Bizi bidaia, beraren mugan hor ote zeraden, jarri naiz dudan, zure begi urdinen argia, izanaren islada argia, pixkana hiltzen, noraezko soan amiltzen heriotzaren bila hurbiltzen.

Ta ni bezela, orain besteak zu bisitatzean, planta tristeak.

Hautsita zenean lotura ezin zeradenean kontura, gatoz propio, malkotan esatera adio, ziur ez dula asko balio.

Besterik ez da, geratzen nonbait eta oroimena, martxan jarri zait. Zuk erakutsitako jolasak ipuin goxo eta solasak, zenbat errezu, jokabidea harturik mezu mila ejemplo, on eman dezu.

Bizirik daukat zure babesa orain zerbait egin ahal baneza eraman behar zaitut etxera, birlobatxoa ezagutzera etzazu etsi, esperantza lagunari eutsi amets gaizto hau dezagun hautsi. •

IAZ BAINO DIRU GUTXIAGO AURREKONTUETAN

Udal hauteskundeak baino lehen onartu dira udal diru kontuak, eta iazkotik alderatuta, 500.000 euro gutxiago izango dira kudeatzeko

UDALA	2002. URTEA	2003. URTEA
Udalaren aurrekontu propioa	16.963.454 euro	15.892.410,17 euro
Udalaren aurrekontu osoa	20.763.986 euro	20.214.019,05 euro

SAILAK EDO ERAKUNDEAK	2002. URTEA	2003. URTEA
Ogasuna eta ondarea	1.462.713 euro	1.211.753,88 euro
Hirigintza	5.791.446 euro	5.037.563,35 euro
Hezkuntza	307.654 euro	251.907,22 euro
Kultura	498.093 euro	413.586,69 euro
Kirolak	557.444 euro	500.375,17 euro
Gizarte Zerbitzuak	831.889 euro	873.842,63 euro
Baserriak	304.419 euro	353.000,00 euro
Festak	444.271 euro	535.146,41 euro
Zerbitzu Orokorrak	5.335.838 euro	5.292.586,32 euro
Goi-karguak	807.327 euro	728.770,19 euro
Merkataritza eta turismoa	138.660 euro	107.684,81 euro
Gazteria	216.406 euro	206.075,00 euro
Ingurugiroa	267.294 euro	15.892.410 euro
Udal Kirol Patronatoa	578.342 euro	632.586,50 euro
Euskara Patronatoa	429.317 euro	392.769,33 euro
Azpeitia Lantzen S.A.	2.874.641 euro	3.233.527,00 euro
Lapatx Zabortegia S.A.	1.262.125 euro	1.202.000,00 euro
4R Fundazioa	60.101 euro	0

Nerea Uranga

Aurten iaz baino lehenago onartu dira Udalako aurrekontuak. Iaz maiatzaren 2an onartu ziren, eta aurreko bi urteetan martxoaren bukaeran. Aurten, berriz, martxoaren 17an egin-dako udalbatzarrean onartu zi-ren. Hauteskundeak baino lehenago, beraz. EAJren eta EA-ren aldeko botoekin onartu zi-ren, eta Azpeitiko Sozialista Abertzaleak-ek ezezko botoa eman zuen.

“Guk ez dugu udal aurrekontuetan parte hartzeko aukerarik izan, eta gure proposamena ez da kontuan hartu”

Miren Odriozola
(ASako zinegotzia)

Edukiz, iazko aurrekontuaren antzekoa da. Diruz, berriz, zer-txobait baxuagoa da: Udalaren

“EAJ eta EA paktoan gaude, eta adostasun batera heltzen saiatu gara gure artean aurrekontuak egiteko”

Jabier Beobide
(Eako zinegotzia)

aurrekontu propioa 15,8 milioi eurokoa da eta aurrekontu osoa —Azpeitia Lantzen S.A.-ko, La-

patx Zabortegia S.A.-ko, Eus-kara Patronatoko, Kirol Patro-natoko aurrekontuak gehituta— 20,2 milioi eurokoa da. Hain zuen ere, iaz baino 500.000 euro gutxiagokoa da aurtengo.

Aurten ere Azpeitiko Sozialis-ta Abertzaleek bere aurrekontu proposamena aurkeztu zuten Udalean. “Guk ez dugu parte hartzerik izan udal aurrekontue-tan. Gure proposamenaren be-rrri izan duzue EAJ eta EA alder-dikook, baina ez duzue kontuan hartu. Zuen proposamena jaso eta astebate ere ez dugu izan aztertzeko. Aurreko urteetan formak behintzat zaindu ditu-zue, baina aurten hori ere ez. Eta gure ustez, gure proposa-menearn badaude interesga-riak diren egitasmoak eta udal aurrekontuan kontuan hartu be-har liratekenak”, azaldu zuen martxoaren 17ko udalbatzan Miren Odriozola, Azpeitiko SA-ko bozeramaileak.

Odriozolari erantzuteko, hitza Jabier Beobide EAKo bozera-maileak hartu zuen: “EAJ eta EA hitzarmenean gaude, eta adostasun batera heltzen saia-tzen gara gure artean. Gure hel-burua, guk —EAK— eskuartean ditugun batzordeetako aurre-kontuak onartzea eta gero adostasun batera heltzea da”. Gaur egun, EA hiru udal batzor-detan da buru: Nekazaritza, Festak eta Ingurumena.

DINAMIKA BERA. EAJk eta EAK horrela adostu badituzte aurrekontuak, Azpeitiko Sozia-lista Abertzaleek iazko dinami-ka bera erabili dute udal aurre-kontu proposamena egiteko. “Udal aurrekontuen proposa-menalantzen jardun dugu herri-tarren ahalik eta partehartze za-balena bilatuz. 2002an ekin ge-nion herritarrekin bilerak egitea-ri, zirriborroa lantzeko eta behin betiko proposamena taxutze-ko”, zioten ASako zinegotziek. “Guretzat herriak dituen premia nagusien zerrenda egin dugu eremuz eremu”.

Udal aurrekontuok dira lege-gintzaldi honetan onartu diren azkenak, maiatzaren 25ean di-ra-eta udal hauteskundeak.

Gerontologikora 871.000 euro bideratuko dira

● **BIDEGURUTZEAK.** Iaz Loiola-bideko errotonda egiteko 360 mila euro eta San-juandegiko errotondarako 601 mila euro aurreikusi ziren. Aurten, berriz ere, bi bidegurutze hauetarako dirua aurreikusi da hirigintza sailetik. Hala nola, Loiolabideko bidegurutzerako 240 mila euro, eta San-juandegiko bidegurutzerako 769 mila euro.

● **MENDI LURRAK.** Mendi lurrak eta lurrak erosteko dirua aurreikusi da Hirigintzatik. Lurrak erosteko 483 mila euro eta Izazpi mendia erosteko 84 mila euro.

● **PLANEAMENDUKO ARAUAK.** Udala herriaren planeamenduko arau subsidarioen berrikusketa egiten ari da. Lan horretarako ere dirua aurreikusi da Hirigintzatik: 135 mila euro.

● **GERONTOLOGIKOA.** Azpeitian gerontologikoa egiteko dagoen egitasmorako ere aurreikusi da diru partida handi bat Hirigintzatik: 871 mila euro.

● **ALDE ZAHARRA.** Hirigintzatik alde zaharra biziberritzeko 300 mila euro aurreikusi dira. Iaz, 60 mila euro aurreikusi ziren.

● **EUSKARA.** Kultura Batzordetik euskarari 132 mila euro bideratu zaizkio, iaz baino gutxiago. Iaz, 163 mila euro bideratu ziren.

● **KOMUNIKABIDEAK.** Kultura Batzordetik, iaz bezalaxe, Kaito Telebistari eta Uztarriari 30 mila euro bideratuko zaizkie. Uztarria Kultur Koordinadorak iazko diru laguntza eskaera bera egin du Udalean, 26 mila euro, aldizkaria, webgunea, mendi-



Alde zaharrera 300 mila euro bideratuko da.



Zezen-plazaren mendeurrenerako: 98 mila euro.

gida, *Literatuzta* eta Imanol Eliasek idatzitako efemerideen liburua laguntzeko. *Azpeitian Zer?* udal aldizkariak 65 mila euro (iaz, 63 mila euro) jasoko ditu Goi Karguak Batzordetik.

● **KIROLAK.** Kirolak Batzordetik, Kirol Patronatora 256 mila euro bideratuko dira (iaz 268 mila euro). Eskola kirolerako 56 mila euro aurreikusi dira (iaz 55 mila euro) eta kirol batzorderako 74 mila euro (iaz 84 mila euro).

● **GARAPEN KOMUNITARIOA.** Gizartekintza Batzordetik iaz emakumeei buruzko plan bat jarri zen abian. Aurten horretarako 15 mila euro (iaz, 18 mila euro) aurreikusi dira, eta diru laguntzetarako 43 mila euro (iaz, 58 mila euro).

● **HIRUGARREN MUNDUA.** Hirugarren mundurako Gizartekintzatik iaz bezalaxe 75 mila euro bideratzea erabaki da.

● **NEKAZARITZA EKOLOGIKOA.** Nekazaritza ekologikoa egitasmoa sustatzeko 48 mila euro aurreikusi dira Baserriak Batzordetik. Iaz ez zen dirurik aurreikusi egitasmo honetarako.

● **ZEZEN-PLAZAREN MENDEURRENA.** Aurten zezen-plazaren mendeurrena ospatuko da Saninazioetan. Udala zezen-plazaren inguruko liburua prestatzen ari da; argitalpenetarako 68 mila euro aurreikusi dira Festak Batzordetik. Eta zezen-plazako mendeurrenaren beste gastu batzuetarako, berriz, 30 mila euro bideratu dira. ●

AZKOITIA
ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Lore Sortak
Koroiak
Lore Apaingarriak
Etxeetarako
Zerbitzua Dugu
Tel.: 943 81 51 87
Loiola-Bide, 25 - AZPEITIA

uztarria
943 - 15 03 58

AMALUP
lorazaintza

- Lorategien proiektuak
- Zuhaisken kimaketa
- Lorategi eta zelaiei mantenua
- Belar landaketa eta tepe, egur, harri edo txilar jartzea

943-025319 (Azkoitia)
679106753 (mugikorra)

ORKATZ KULTUR ELKARTEA
Erdi Kalea, 24

TABERNA
LOKOTX
Teléfono: 943 151086
Enparantza Nagusia

Otamendi
Bizi Denda
Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49



Martxoaren 1ean aurkeztu zen, plazan, Habea, azpeitiarren bilgune "ezkertiarra eta abertzalea". / NEREA ARANBURU

HABEA-K 500 SINADURA BEHAR DITU AURKEZTEKO

Azpeitiko "ezkertiar eta abertzaleen" bilgune berriak datozen udal hauteskundeetara aurkeztuko dela esan dio Uztarriari

Nerea Uranga

Habea, Azpeitiko "ezkertiar eta abertzaleen" bilgune berriak, udal hauteskundeetara aurkeztuko dela esan du, eta hortetarako, lehendabizi, 500 herritarren sinadura behar du, lehenbailehen gainera. Dena dela, 500 sinadura lortuko balitu ere ikusi egin behar aurkezterik lukeen, Espainiako Estatuak Batasunaren ilegalizazioa erabaki ondoren, aurrez herrietan eta herrialdeetan sorturiko ezker abertzaleko plata-

formak ere legez kanpo uzteko asmoa duelako. Eta laster jaikingo da hori.

Habeak, ordea, bere martxari eutsiko dio, eta orain, sinadura kopuru hori lortzeaz gain, elkarrekin herrian ezagutzera eman nahi du. Hain zuzen ere, martxoaren 1ean egin zuen jendareko lehen agerraldia; Plazan egin zuen aurkezpena, eta jende asko bildu zen.

Herri ekimenez sortutako plataforma dela esan dio Uztarriari bertako arduradunek. "Habea sortzerako Batasunaren bidea bukatutzat ematen zela ikusten

zen; hau da, prozesu bat bukatu zela eta herri mugimendutik sortuko zen zerbait sortu behar zela. Herriko jendea eta taldeak biltzen hasi ginen, bilgune bat osatu zen eta bilgune horren funtzionamendua definitzeko eztabaidatan hasi ginen. Orain bilgunearen barruan arloak sortu ditugu: kultura, euskara, kirola, sozio-ekonomia, diruzaintza, konponbide demokratikoa eta komunikazioa. Eta aukeran utzi ditugu ingurumena eta emakumearen arloak. Azken batean, Habea herriko plataforma da, herritarrek sortua eta

Azpeitirako balioko duena, ez beste inorako", dio Olatz Aranguren bultzatzaileetako batek.

UDALEAN "BEHARREZKOA". Maiatzeko udal hauteskundeetara aurkeztuko dela dio Habeak, bera bertan egotea "beharrezkoa" delako. "Behar-beharrezkoa ikusten dugu Udalean EAJ eta EA ez den beste sektore baten presentzia. Guretzat Udala tresna garrantzitsua da, eta esparru horretan lan egitea garrantzitsua da Habearentzat", dio Pello Odriozola, Habea bilgune bultzatzaileak.



“Habea herriko plataforma da, herritarrek sortua eta Azpeitirako balioko duena”

“Habea ez da sortu hauteskundeetarako soilik, bilgune hau luzera begirako asmoa delako”

Olatz Aranguren
(Habeako bultzatzailea)



“Guretzat Udala tresna garrantzitsua da eta esparru horretan lan egitea garrantzitsua da Habearentzat”

Pello Odriozola
(Habeako bultzatzailea)

Izenaren nondik norakoa

● **Izena bera, Habea, bilguneetik ateratako izena da, eta bilgunearen izaeraren “deskribapena” egiten du. “Habea, zutoina da, zutoin horizontala; ez da behetik gorakoa, bertikala. Hori da hitzaren deskribapena. Gero, ‘h’-a kenduz gero, Azpeitiko Bilgune Ezkertiar eta Abertzalearen siglak lirateke”, dio bilguneako kide Olatz Aranguren.**

Nola eman sinadura

● **NOIZTIK.** Apirilaren 1ean hasi zuen Habea plataformak maiatzeko Azpeitiko udal hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko sinadura bilketa.

● **NOIZ ARTE.** Apirilaren 15a (astearte) izango da sinatzeko azkeneko eguna.

● **EGUNAK.** Astelehenetik larunbata arte eman daiteke sinadura, larunbatean barne.

● **NON.** Azpeitiko Udaletxera joan behar da, eta Olatz idazkariagatik galdetu, hark baitu ardura hori.

● **ORDUTEGIA.** Goizeko bederatzietatik eguerdiko ordu bi eta erdiak arte egongo da Udaletxean sinatzeko aukera.

● **ZER BEHAR DA.** Norberaren nortasun agiria eraman behar da, eta Habea elkartearen alde sinatu behar duenak Azpeitian egon beharko du errolatua.

● **SINADURA KOPURUA.** Habea plataformak 500 sinadura beharko ditu Azpeitiko udal hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko.

● **AUB-RENTZAKO ERE BAI.** Habearen aldeko sinadura botatzeaz gain, Gipuzkoako Autodeterminaziorako Bilgunea Gipuzkoako Foru Aldundira aurkeztu ahal izateko sinadurak botatzerik ere egongo da Udaletxean, bide eta epe beraiek erabilita.

Udalean 2, 4, 7, 10. tokiak EArentzako lirateke, eta 13.a ere bai

Laster jakingo dira EAJ-EA koalizioko zerrendako izenak

N. Uranga / Hilabete eskas gertatzen da udal hauteskundeetako kanpaina hasteko —hauteskundeak beraiek 25ean dira—, eta Azpeitian EAJ eta EA ere ari dira gauzak lotzen. 1999an ez bezala, koalizioan joango dira oraingoan, eta datozen egunetan emango dute ezagutzera zerrenda. Apirilaren 20a da zerrendak aurkezteko azkeneko eguna.

EAK aste honetan bertan —asteartean— egin du batzarra koalizioan egongo diren EAKo kideen zerrenda onartzeko. Uztarriak ordurako erredakzioa itxita zeukan, baina aurrera dezake bi zerrenda aurkeztu zirela: bat herriko zuzendaritzarena eta bestea Jabier Beobide zinegotziarena.

EAJ-EA koalizioko bigarren tokiari joango da EAKo aurrena. Hamar lehenen artean, laugarren, zazpigarren eta hamargarren postuak ere EAKoak izango dira, eta, beraz, oso litekeena da EAK gaur bezala gutxienez lau zinegotzi izatea hurrengo legealdian, orain EAJren eta bere artean 11 dituztelako (zazpi eta lau; Sozialista Abertzaleetakoak dira beste seirak). Koalizioan 12.a EAJkoa izango da, 13.a EAKoa, 14.a eta 15.a EAJkoa.

Euzko Alderdi Jeltzaleek ere laster onartuko du bere zerrenda. Jakina denez, Julian Eizmendi izango da EAJko (eta koalizioko) burua, eta ez, azken lau legealditan bezala, Jose Mari Bastida gaur egungo alkatea. ●

“Uste dugu alderdi tradizionalez gainera, Udalean alderdi ezkertiar baten ordezkartza izatea garrantzitsua dela. Eta aurreneko aldia da herrian beste eskaintza bat ematen duguna; hau da, Habea herritarrek sortutakoa baita. Herritarrek aurkeztuko dira zerrendan eta gure ustez alternatiba polita eskaintzen dugu, herriari begira egindakoa delako eta herritarrek egina”, dio Aranguren.

Baina hauteskundeetarako soilik ez dela sortu diote Habeakoek. “Luzera begirako asmoa da bilgunea. Tartean udal hauteskundeak suertatu dira, eta beste taldeak bezalaxe, gu ere aurkeztu egingo gara”.

Uneotan, hauteskundeetarako zerrendak osatzen ari da Habea. “Zerrenda herritarra eta ahal den esparrurik zabalena ordezkatzeko duena izatea nahi dugu; aurpegi berri batzuk ere sartzen ari gara. Ezkertiarra izango da eta betiere ezkertiar ikuspegia lantzeko asmoarekin”, dio Odriozolak. Uztarriak jakin duenez, gauza asko ditu lotzeko; besteak beste, zerrendaburuarena.

II. Euskal Eskola Nazionalaren festa martxoaren 30ean ospatu zen, Ikasberri Azpeitiko Ikastolak antolatuta. Euskal "hezkuntza sistema osoa" aldarrikatu zuten berriz ere

EUSKAL ESKOLA NAZIONALA ALDARRI

Nerea Aranburu

Martxoaren 30a, Euskal Eskola Nazionala aldarrikatzeko eguna izan zen. Bigarren urtez antolatu dute Ikasberri Azpeitiko Ikastolakoek. "Gure ekimenez hasi ginen Euskal Eskola Nazionalaren eguna ospatzen orain bi urte. Ez da izugarritzko ekitaldia, ez da jendetza asko biltzeko festa, baina bai aldarrikapen argi bat egiteko eguna", dio Mirari Bereziartua, antolatzaileetako kidea.

"Euskal Herriari dagokion eskola propioa" da Euskal Eskola Nazionalaren eguneko aldarrikapen nagusia. "Gaur egun ez daukagu Euskal Herri osorako administrazio propioa. Lurraltasun oso horri erantzun behar dion hezkuntza sistema osoa aldarrikatzen dugu, bai eskola eta bai unibertsitate pro-



HERRI BAZKARIA. Goizean goizetik hasi ziren Euskal Eskola Nazionalaren aldeko ekitaldiak. Beste herrietatik etorri ziren kideei lehen ongi etorria egin ondoren, eguerdi aldera denek batera herri bazkaria egin zuten Azoka Plazan.



'EGUNKARIA'-RI OMENALDIA. Atxilotuen senitartekoei eta 12 azpeitiar langileei aitorten berezia egin zitzaion.

pioaren planteamendua egiteko". Antolatzailearen hitzetan, "garrantzitsua da une hauetan herritartasunean oinarritutako proiektuan segitzea. Eta epeka horretan hausnartzen joan beharra daukagu. Ikastolak 40 urte hauetan lan horretan dabil-tzanez, ikastolei zor zaien aitort-pena aldarrikatu nahi dugu, eta bide batez, duintasunezko tramendua ematea".

ORDEZKARITZA. Euskal Eskola Nazionalaren aldeko festara Euskal Herriko lurralde bakoitzetik ordezkari bat etorri zen: Iparraldetik Hazparneko ikastola, Nafarroatik Tuterako Argia ikastola eta Altsasukoak, Arabatik La Pueblako ikastola, eta Bizkaitik Betiko ikastolakoak. Udaltitzakoak eta Kontseilukoak ere gonbidatu zituzten. *Egunkaria*-ko azpeitiar langileei omenalditxo bat ere egin zitzaion goizeko ekitaldian.

II. edizioarekin lotuta, Nabarralde elkartearekin batera hitzaldi sorta antolatu zuen Ikasberrik, *Euskal Herriaren historia ezagutzen* izenburupean. ●

“Garrantzitsua da une hauetan herritartasunean oinarritutako proiektuan segitzea”

Mirari Bereziartua
(antolaketa taldeko kidea)



DANBOR HOTSAK. Goizeko lehen orduetatik Ikasberri Ikastolako ikasleek giroa alaitu zuten euren danbor hotsekin.

e u s k a l d u n o n
Egunkaria

aurrera!

Orain inoiz baino gehiago!

Egin zaitez harpidedun

deitu

943 30 35 55 / 943 30 35 54
635733389 / 635733388

telefonoetara

edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide hauetara:

Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN

www.egunero.info/harpidetza

Euskarak behar zaitu

Egunero



EGUNERO GARA ORAINDIK

Egunkaria itxi digute. Euskarazko komunikazio tresna nagusia lurperatu dute. Gure ahotsak itsutu dituzte eta begiradak mututu. Ez dakit honi guztiari buruz idatzi, kontatu edota oihukatu gabeko ezer gelditzen den. Hemendik aurrera idatzitako guztia, beste idatzi guztiak bezala, ez da hain pertsonala izango, guztiona baizik, nirea, zurea, guztiona. Isiltasun behartu honi buruz izan da erreakziorik herrian, izan da malko isuririk begi gorietan, izan da pozik, ilusiorik, aurrera jarraitzeko indarrik ere, guztion babesa ez da zure babesa bakarrik, guztiona da, eta ez da pena edo atsekabearen babesa, ilusioa eta sentimenduaren babesa baizik.

Egoera honen aurrean hiru hitz bururatzen zaizkit gogoaren baratzean erein beharrekoak: Egunero, Denbora eta Gu. Hitzak dantzan jartzea erraza da, hitzek gure barruan kilimak sortzea zailagoa ordea.

Egunero iratzartzen naiz hortzak aireari eskainiz
Egunero begiak kiribiltzen zaizkit
zure hitzen esperoan.
Egunero nire ahotsak zure belarriak aurkitzen ditu
esaldi bat eta beste bat eta beste bat sortzeko asmotan.

Egunero nire behatzak zure gorputzean galtzen dira, eta
maitale kultural papera hartuaz, negarrez pozten naiz.

Egūnero irekiko ditut begiak
zure gorputza irakurtzeko
Egunero salatuko ditut
nire belarriak jasaten dituen tratatu txarrak
Egunero isilduko naiz
nahi dudanean
eta ez behartzen nautenean
Egunero erabiliko dut
gure ama hizkuntza
Egunero moztuko dut mihia
gaztelaniaren aurrean
Egunero nire garrasiek belarri ez gaituak mututu-ko dituzte
minutu batez bada ere.


Denbora, elementu xeble hori
inork engainatu ezin duen ezul bat bezalakoa da
Denbora,
Denbora, aurrera begiratu eta atzean segundoak bide ertzean utzi dituzun sentsazioak harrapatzen zaitu.

Denbora, zaindiratu oro sendatzeko ukendu nekaezina

**HILEKO
GALDERA. Eta
hurrengoan
zein?**

Denbora, irribarre herdoilduak hilko dira euri zaparradetan,
euskaldunen bihotzen zainekin itoko.
Denbora, askotan gure esku bakarrik ez dago
ahotsa mendi gainera altxatzea.
Ez naiz ni, gu gara
Guztiok behar gaitu une zail honetan
Ez dugu gure buruarekin konforme egon behar.
Ura bezala, faltan bota behar dugu une umel hauetan,
eta beti eduki behar dugu egarria, zure egarria,
Ezin dugu esku bakarrarekin aurrean dudana hori igo,
zure laguntza, eta zurea, eta zurea... ez dira nahiko.

Ados ez dagoen ororen eskuak behar ditugu
horma hori gainditzeko.
Egunero denbora hartu behar dutenak gu gara.
Egunero egunkaria irakurriko dut
Egunero irakurtzen dudana bezala.
Ez inoiz isildu, ahotsak behar zaitu.



Uztarria Kultur Koordinadora

Maiatzaren 9an hasiko da II. Kulturaldia, 'Kutsidazu bidea, Ixabel' antzezlanarekin

Uztarriaren datuak

Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerre (Azpeitia).
Telefonoa eta faxa: 943 - 15 03 58
Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

Web orria:

www.uztarria.com

Posta kutxa: 227, Azpeitia
Inprimategia: Gertu
Tirada: 1.900 ale
Lege gordailua: SS-860/2000

aldizkari honen laguntzaileak



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA Kultura Saila

Uztarria Kultur Koordinadorak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna



Kutsidazu bidea, Ixabel antzezlanaren irudi bat. / EGUNERO

Joan den urtean hasitako bideari jarraituz, Uztarria Kultur Koordinadorako taldeek Azpeitiko II. Kulturaldia egingo dute maiatzaren 9an hasita. *Kutsidazu bidea, Ixabel* antzezlanarekin hasiko da. Egun horretan bi emanaldi eskainiko dira Soreasun. Gainontzeko ekitaldiak zehazteke daude oraindik, baina iazkoari begira izango da aldaketarik. Hala, Kulturaldiak denbora gehiago iraungo du (iaz bizpahiru aste iraun zituen), eta ekitaldiak ez dira hain elkarren ondoan joango. Eta Uztarria Kultur Koordinadorako taldeek Kulturaldiaren bidez jarri duten helburuak berean segitzen dute: kultur

sormena bultzatu, herria kultur aldetik piztu.

Iaz hainbat ekitaldi antolatu zituzten koordinadorako taldeek: Artisautza Azoka, rock kontzertuak, antzerki emanaldia, poesia, erakusketa... Jende aldetik erantzun ona izan zuen, eta, azpiegitura aldetik herrian dauden arazoak kontuan hartuta, antolaketa ere bide onetik joan zen.

Kulturaldia ez da ezerezetik sortu. Azpeitiko kultur gintzari eta egoerari buruzko gogoetan ere badiharduelako azken urteotan Uztarriak, eta egoera hobetze aldera egin beharreko bidean kokatzen da Kulturaldia.

albiste txikiyek

Alkatearen elkarriketaz

Uztarriak zera dio 38. zenbakian Jose Mari Bastida alkateari egindako elkarriketaren ondorioz alkateak berak *Azpeitian Zer?* udal aldizkarian esandakoaz: 1. Elkarriketan ez zeudela galderen bi atal, atal asko baizik (alkatetza, kultura, hirigintza, errepideak eta etorkizuna). 2. Alkateak Uztarriari orduan esan ziola legegintzaldia bukatu ondoren erantzungo zituela atal batzuk, ez aurretik.

Uztarria ere bai Korrikan

Uztarria Kultur Koordinadorak Korrika Azpeititik pasatuko den egunean lekukoa eramango du, Baiterekin batera.

Uztarria tesi batean aipatua

Aitor Zuberogoitia bizkaitarrak euskal prentsaren geroaz tesia egin du, eta Uztarria aipatu du, komunikazio arloko izaera laudatuz. "Sistema erreferentzial propioa behar du euskal prentsak", dio Zuberogoitiak.

645 bazkide gara jada

EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZTARRIAN

Urtean 21 euro (aldizkaria, bi liburu, 'Literatuzta') / Bestela egin harpidedun (aldizkaria soilik; kontuarena ez beste guztia bete)

IZEN-ABIZENAK:

HELBIDEA:

HERRIA:

KODE POSTALA:

TELEFONO(A)(K):

POSTA ELEKTRONIKOA:

KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA (20 digitoak):

Julian Elorza Hiribidea, 4, 2.a ezkerre • 227 posta kutxa • Telefonoa eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

Astindu handia eman dio euskaldun munduari 'Egunkaria'-ren itxierak, eta azpeitiarrek lehen eskuko informazioa jaso zuten Baiteren hitzaldian, 'Egunkaria'-ko azpeitiarrak izan zirelako hizlari

“JARRI GARA BESTE 'EGUNKARIA' BAT EG

Idoia Mendizabal

Leire Aramendi, Jon Aranburu, Iban Arregi, Mikel Arregi, Mikel Azkune, Estitxu Elduaian, Oihana Elduaian, Enekoitz Esnaola, Eneko Etxeberria, Asier Legarda-ereño, Xebaxtian Lizaso eta Kike Zurutuza. Horiek dira *Euskaldunon Egunkaria*-ko langile azpeitiarrak. Hamabi. Askok dira. Eta askok dute esateko. Horregatik iritzi zion Baite Azpeitiko Euskararen Elkarteak martxoaren 19an haietako ordezkari batzuek hitzaldia emateari. Eta hain zuzen, Xebaxtian Lizaso komertzialak eta Enekoitz Esnaola eta Iban Arregi kazetariak eman zuten hitzaldia, Laxaro Azkune Loiola Herri Irratiko kazetari eta Baiteko ki-deak aurkeztuta.

Mezu garbia eman zuten *Egunkaria*-ko langile azpeitiarrek: oraindik preso dauden Xabier Alegria, Xabier Oleaga eta Iñaki Urias askatzea exijitzeaz gain, otsailaren 20an Guardia Zibilak armaz *Egunkaria* itxi zuten geroztik “azkar erreakzionatzeko gaitasuna” izan dutela (*Egunero* egunkari nazionala ateraz hurrengo egunean bertan, orrialdeak gehituz ondoren, enpresan lan batzordeak sortuz, herrietan jada ehun batzorde pasatxo sortuz, milaka atxikimendu lortuz, ekitaldiak antolatuz...), *Egunkaria*-ren alde “mundu bat biltzeko gaitasuna” izan dutela (Donostiako manifestazioa eta martxoaren 13ko Elkartasun Eguna dira adibide), eta, *Egunkaria*-ren 11 puntu sortzaileetan oinarrituta, euskarazko beste egunkari bat sortzeko “martxan” jarri direla.

Enekoitz Esnaolak 11 puntuok oinarri hartuta eman zuen bere azalpena, “oinarrizkoak izan direlako *Egunkaria*-ren biziraupenerako eta nolabaiteko arrakastarako. Horregatik jo dute *Egunkaria*-ren kontra”.

GINARRIAK JARTZEN. 11 puntuak egun batetik bestera ez zirela asmatu esan zuen Esnaolak. “*Egunkaria* 1990ean sortu zen, baina euskarazko prentsa urte batzuk lehenagotik bazetorren, ez eguneroko egunkari formatoan, aldizkari formatoan baizik, *Argia*-rekin batik bat. Baina aurretik ere bazeuden euskarazko prentsaren funtzionamendurako oinarrien aipamenak eta aldarrikapenak”. Hala, XX. mende hasierako adibideak eta kasuak aipatu zituen. “1917an Aita Arbelaitz kaputxinoak euskarazko egunkariaren beharraz hitz egin zuen, esaten zuen oso beharrezkoa zela euskarazko egunkaria sortzea eta sortu egin behar zela. Eta halako batean esan zuen: ‘Beldurrak bota egin behar ditugu, denok batu eta sortu egin behar dugu egunkari bat, euskarazko egunkari bat’. Horrela-ko proiektu baterako elkartu beharraz hitz egin zuen, beraz. 1929-1930ean, berriz, Lizardi izan zen egitasmoari heldu ziona, eta balizko euskarazko egunkariak izan beharrek bi irizpide interesgarri aipatzen zituen: euskaltzalea izan behar zuela eta alderdi politikorik gabekoa. Hortaz, erreferentzia horiekin ikusten da XX. mende hasieran jada aipatzen zirela *Egunkaria*-k gaur egin zituen oinarritzko puntu batzuk, giltzarriak”.

Esnaolak aipatu zuenez, harrezkero egon izan ziren saio batzuk euskarazko prentsaren aldekoak —1937an *Eguna*, eta 1986an *Eguna* eta *Hemen*—, “baina aurreneko kasuan, alderdi politiko baten —EAJren— menpe zegoen proiektua zen, eta 1986an, berriz, biak ere erdarazko komunikabideen enpresa argitaratzaileen menpe —*Eguna* Deia-renean eta *Hemen* Egin-enean—. Eta ez zuten funtzionatu. *Egunkaria* da funtzionatu duen bakarra. Eta hori bere sorreran arazo eta traba handiak izan zituela: erakunde publikoetatik laguntzarik ez batetik, eta *Egunkaria*-ren sorrerakiko mamuak bestetik, halakok sortu zuela esanez eta”; adibide batzuk aipatu zituen, “garrantzitsua baita oroimen hori izatea, batzuek hurrena akats beraiek ez egiteko”.

ERRESPETUA. *Egunkaria*-ren aldeko apustuak irabazle irten duela esan zuen Enekoitz Esnaolak, “iraun egin duelako, egunero 60.000 irakurle zituelako, egunero 56-60 orrialde, astean zazpi gehigarri, dena lau mila iragarle... Behin ere 11 puntuei bizkar eman gabe”. Eta zioen *Egunkaria* nazionala izateak min ematen diola Espainiako Estatuari. “Horregatik jo dute gure kontra, *Egin*-en, Haikaren, AEKren edota Batasunaren kontra jo izan duten bezala”.

Xebaxtian Lizasok berak *Egunkaria*-n lan egiteaz gain, proiektuaren sorreran parte hartu zuen, *Egunkaria* Sortzen taldean —hurrengo orrialdeetan dago sorrerako garai hura garatuta—, eta hamahiru urte hauetan guztietan egindako lanari esker

“ ‘Egunkaria’-ren apustua irabazle atera zen, behin ere 11 puntuei bizkar gabe; horregatik jo dute gure kontra ”

11 puntuak, oinarri

Ondorengoak izan ziren *Egunkaria*-ren 11 puntu fundazionalak, eta euskarazko hurrengo egunkaria ere 11 puntuotan oinarrituko dela esan zuten hitzaldian *Egunkaria*-ko langile azpeitiarrek, "horiek direlako irauteko berme bakarra".

● **1. EUSKALTZALEA.** Euskaltzaletasunak emango dio egunkaria kalean jartzearen saioari lehen eta funtsezko oinarria.

● **4. ZABALA.** Astakeria litzateke, egun, euskal irakurlegoaren osotasunera zuzentzen ez den egunkari bat argitaratzea.

● **5. INDEPENDENTEA ERAKUNDE POLITIKOETATIK.** Bere editorialak ezarritako irizpideetan libre aurkitu behar du.

● **6. INDEPENDENTEA ERDARAZKO KOMUNIKABIDEETATIK.** Elebakar defini-

● **8. DIRUZ LAGUNDUA.** Proiektu hau definitzerakoan argi daukagu instituzioetatik bakarrik etor daitekeen diru laguntza beharrezkoa dela. Euskarazko edozein proiektu erdararekin lehiatu beharrean da eta laguntza bereziak behar dituela garbi irizten diogu guztiok.

● **9. MILITANTEA.** Diru laguntzak lortuta ere, proiektu honek, bertan parte hartzen dugun guztion militante joeran izango du bere etorkizunerako garantia.

TEKO MARTXAN"

● **2. NAZIONALA.** Lurraldetasunaren aldetik nazionala izatea ere funtsezkoa da. Gure herriak nozitzen duen zatiketa administratiboaren gainetik bai hizkuntz edo kultur beharren aldetik eta baita zerbitzu informatiboaren aldetik ere herri honek batzea izan behar baitu helburu.

● **3. BATERAKOIA.** Setakerien gainetik egunkariaren alde elkar daitezkeen indar guztiak batu behar ditugu.

tzen den proiektu hau ezin daiteke beste helbururen pean mugitzen diren interesetan korapilatu.

● **7. EZ INSTITUZIONALA.** Administrazioaren aldetik kontrolak beharrezkoak dira, instituzioen diru laguntzaren arabera. Hala ere, iruditzen zaigu beharrezko diren diru publiko horiek ez dietela instituzioetako arduradunei beste motatako kontrolik ezartzeko eskubiderik ematen.

● **10. PROFESIONALA.** Profesionala izan behar du bai egunkariak bai proiektu editorial —enpresarial— guztiak. Izan ere, kalitatea helburu baino oinarritzko beharra du horrelako proiektu batek. Etorkizuna horrek erabakiko baitu.

● **11. BERRIA.** Proiektu hau berria izatea ere ezaugarri berezizat hartzen dugu. Indar berriz proiektu berrietan apustu berrietan apustu egiteko garaiak dira.



JAKIN-MINA. Martxoaren 19an eman zuten *Egunkaria*-ko langile azpeitiarrek hitzaldia, *Egunkaria* itxi eta hilabetera, eta azpeitiarrek jakin-mina dutela erakutsi zuten, Aitonena I-eko aretoa bete egin zelako (ordukoa da argazkia). Hilabete lehenago ere jende asko bildu zen han, Martxelo Otamendi *Egunkaria*-ko zuzendariak hitzaldia eman zuenean.

gaur egun egunkari berria egiteko zutabe "asko" dagoela esan zuen.

Hala, "beste *Egunkaria* bat egiteko martxan" daudela esan zuen Iban Arregik. Horretarako, langileek "errespetua" eskatu zuten. "Errespetua, hamahiru urteko lan profesionalagatik eta militantziagatik. Errespetua, hamahiru urteko ibilbideagatik, *Egunkaria* ez delako izan ez alderdikoia, ez instituzionala, inon menpe ez delako egon. Errespetua, bide bat zabaldu dugulako. Errespetua, *Egunkaria* errealitatea eta erreferentzia bihurtu delako. Errespetua, *Egunkaria*-k aniztasuna izan duelako".

Iban Arregik zioen langileek "konpromisoa" hartu dutela proiektu berria lantzeko, "eta behin eta berriro esaten ari garena da *Egunkaria* ez duela itxi zabaltasunaren gaineko eztabaidak, *Egunkaria* Guardia Zibila itxi zuela baizik".

Langileok ziotenez, "nabarmentzekoa izan da gizarteak eman duen erantzuna, baina *Egunkaria*-ren alde egotetik *Egunkaria*-ren alde egitera pasatzeko eskatzen diegu azpeitiarrei ere, erosiz eta irakurritz".

“ ‘Egunkaria’-ren alde egotetik ‘Egunkaria’-ren alde egitera pasatzeko eskatzen diegu azpeitiarrei langileok”

“Del Olmoren autoaz hitz egitean, logikaz kanpoko zerbaitez ari gara”

Azpeitiarra da Egunkaria S.A. enpresaren lege ordezkaria. Gertutik jarraitzen dihardu, horrenbestez, 'Egunkaria'-ren kontrako auzia

Iban Arregi

Batetik bestera dabil azken bolada dagoeneko luze samarrean, lanean, jo eta su. Orain Madrilera, hurrena bilera bat beste abokaturen batekin... Tartean badu Uztarriarekin egoteko astirik ere.

● **Hasteko, Eneko: erabakia “erabat politikotzat” jo denean, autoaz hitz egiteak bal du zentzurik?**

Abokatu bezala esango dizut erabat harrituta nagoela ni ere. Nik ezagutzen eta ikasi dudan zuzenbidean behintzat, ez nuen inoiz horrelako egoerarik ezagutu. Ikusi dudana zera da: juridikoki inpotentzia izugarria sentitzen dela.

● **Zer zentzutun?**

Autoa irakurtzen baduzu, ez dago datu zehatz bat, ez dago egoera zehatz bat non esaten duen: “Hau eta hau gertatu da”, “halako erlazioa gertatu da...”. Dena da literatura, erabat modu zikinean eginiko literatura gainera, eta ikusten dena da horren atzetik intentzionalitate politikoak egon behar duela, derrigorrez. Bestela ezin uler daiteke.

● **Autoa hankamotz al dago, beraz, arlo juridikotik begiratuta?**

Autoak beti izan behar ditu datuak. Alegia: “Delako hark, egun hartan, ordu hartan, lotura bat egin zuen ez dakit zeinekin, eta hau, hau eta hau egin zuen...”. Baina auto hau hartzen badugu, ETari buruz hitz egiten du orokorrean, orokorkeria asko esaten ditu, baina datu zehatzik ez.

● **Eta zertan oinarritu da Egunkaria ixteko?**

Bi oinarri ditu autoak: bata, oinarri ekonomikoa, zeinek esaten duen Egunkaria Sortzen-en eta Egunkaria-ren oinarria diru zuriketa egitea dela. Dena dela, epaileak berak azkeneko autoan esaten du hori frogatu beharra dagoela; berak onartzen du, beraz, ez dakiela ezer, eta euskalgintza eta Egunkaria ezagutzen duenak badaki herriak jarritako diruarekin egin zela Egunkaria (herritarrek, ikastolek, udalek, tabernek, harpidedunek...). Guardia zibilek ezin zuten hori ulertu. “Yo no pondría un duro por el idioma español”, esan zion batek atxilotuetako bati. Ezin dute ulertu jendeak euskararen alde dirua jartzea.

● **Eta zein da autoaren bigarren oinarria?**

Oinarri mediatikoa. Alegia, Egunkaria ideologikoki ETaren estrategiaren barruan dagoela dioen oinarria. ETaren ideiak zabaltzeko dela Egunkaria, horixe da autoak dioena. Jakina, beraiek egiten duten

analisia oso-oso sinplea da, eta haxe da: ETA euskararen eta Euskal Herriaren independentziaren alde dago; beraz, helburu horiek dituen edozeinek ETArekin lotura dauka.

● **Zuzenbideaz ezer ez dakienak ere badauki delituak pertsonak egiten dituztela. Nola uler daiteke Joan Mari Torrealdai Administrazio Kontseiluko presidentea, Txema Auzmendi idazkaria eta Martxelo Otamendi Egunkaria-ko zuzendaria kalean izatea, eta Egunkaria-k itxita segitzea?**


Ikusten dena da logikaz kanpoko zerbaitez ari garela hitz egiten. Txema Auzmendiren kasua oso-oso argia da, esate baterako. Auto osoan behin baino ez da aipatzen haren izena. Eta oso-oso gauza orokorrak esaten dira atxilotuez. Haien atxilotetak ere ez du batere zentzurik, gainera. Haien adina eta bizimodua kontuan hartuta, edozein zitazioaren aurrean Espainiako Auzitegi Nazionalera beraien kasa aurkeztuko lirateke. Absurdoa da hau dena.

● **Asko aipatu izan da auto horrek oinarritzko eskubideak urratu egiten dituela, batere frogarik gabe (informazio eskubidea, besteak beste). Espainiak urteak daramatza enpresak ixten, komunikabideak ixten, abertzaleak atxilotzen, erakundeak ilegalizatzen... Horren aurrean ezer egin al dezake abokatu batek?**

Espainiako Auzitegi Nazionalen ez dago ezer egiterik. Auzitegia bera fisikoki ikusita ere, bunker handi bat da, eta berehala ikusten da han ez dagoela ezer egiterik. Kasurik garbienean ere (duela urtebete Jon Abril kazetariarekin gertatu zena, adi- ➤

“Argi badago badago esparru honetan sortzen dugun edozer gauza arriskuan dagoela, beste egitura politiko bat behar da”

“Espainiako Auzitegi Nazionalen ez dago ezer egiterik. Eta gainera auzitegiak ere erabat politizatuta daude Espainian”



‘EGUNKARIA’ ATZEAN DELA.

Otsailaren 20an *Egunkaria* itxi zutenetik, besteak beste Martin Ugalde Kultur Parkeko bulegoetan ari dira lanean hango langileak (Kontseilua, EHE, Aztiker, Plazagunea, SEI eta beste zenbait erakunderen harrera eta jarrera "ezinhobeari esker", *Egunkaria*-ko langileen arabera). Goiko argazkian, Eneko Etxeberriaren atzealdean ikus daiteke *Egunkaria*-ren egoitza, itxita.

Iñigo Iruinen alboan

• Urteak daramatza Eneko Etxeberriak zuzenbide arloan lanean. Urte dezentez aritu zen LABeko abokatu moduan, eta azken urteotan Egunkaria S.A.rentzat egiten zuen lan. Enpresaren lege ordezkaria bera denez, berari egokitu zaio Iñigo Iruin atxilotuen abokatuarekin egotea. Iruinekin Espainiako Auzitegi Nazionala zapaldu duten denek ikusi dute zenbateraino eza gutzen duen hark hango mundu dena, eta zenbateraino errespetatzen duten epaitegian bertan. Haren alboan ikasteko aukera ere izan du, beraz, Eneko Etxeberriak.

» bidez), galtzeko beldurra dago. Lehen bazen gaineko auzitegiaren batera jotzeko aukerarik; baina gainera auzitegiak ere erabat politizatuta daude Espainian (Auzitegi Gorena, Auzitegi Konstituzionala), eta ez dago botere banaketarik.

• Eta Europar?

Europakoa izan daiteke aukera bakarra, baina Europako auzitegia ere ez da independentea, estatuek parte hartzen dutelako. Eta han zer gertatuko den, auskalo! Gainera, asko luza daiteke kasua.

• Kanpotik begiratuta, botere banaketaren urraketa hori disimulatzen saiatu ere ez direla egiten ematen du, eta Espainiako Barne Ministerioak eta Juan del Olmo kasu honetako epaileak elkarrekin egin omen zuten ohar horretan egon daiteke adibiderik garbiena.

Ohar bateratu hori ikertzeko eskaera egin genuen, baina erantzun ere egiten dute: fiskalak epaitegiko faxa erabili zuela, deskuido bat izan zela, Espainiako Barne Ministerioak halako edo bestelako ulertu zuela... Ohar bateratu hori ez ikertzea erabaki dute. Kasu honetan gertatu den gauzarik asaldagarriena da, beharbada.

• Zuk zeuk, gainontzerakoan, nolako giroa sumatu zenuen Espainiako Auzitegi Nazio-

nalean. Del Olmo epaileak nola tratatu zaituzte?

Ni bi aldiz egon naiz Del Olmorekin, bietan Egunkaria S.A.ren lege ordezkari moduan. Lehenengo aldian, *Egunkaria*-rekin lotuta zer itxi zuten, zergatik itxi zuten, horrek zenbaterainoko eragina zuen... jakin nahi genuen. Zurrumurruak entzuten genituen: enbargoa, kontuen blokeoak... Baina autorik ez genuen, eta lege ordezkari moduan autoa eskatu nion Del Olmori. Baina erantzun zidana izan zen atxilotuei eman ziela jada, eta hauek bazutela errekurtsioa egiteko aukera. Atxilotuak, ordea, inkomunikatuta zeuden. Lehenengo aldi hura oso gogorra izan zen. Handik gutxira autoa eman zigun.

• Eta bigarren aldia nola joan zen?

Gaizki. Hamar egunera-edo joan ginen Iñigo Iruin eta biok, bere aurrean agerraldi bat egitera. Ni enpresaren lege ordezkari moduan hitz egiten hasi nintzenean, hitz egiten ari nintzenean, Del Olmo jaiki egin zen eta alde egin zuen, "*porque tengo que hacer algunas gestiones...*". Iñigo Iruin ari zenean ere alde egin zuen, eta bukaeran zera eskatu zigun: "*¿Me pueden hacer ustedes un resumen?*". Oso jarrera prepotentea erakutsi du.

• Azken urteotan Baltasar Garzonek zuzendu ditu halako operazioak, eta Espai-

niako Polizia aritu da lanean; oraingo honetan, lehenengo aldiz Juan del Olmok zuzendu du operazioa, eta Guardia Zibila aritu da lanean. *Modus operandi* berri horrek zerbait esan nahi al du?

Ez dakit. Nik dakidana da Madrilen badirela gorputz polizial ezberdinen arteko haserreak, jeloskorkeria kontuak. Guardia Zibilak ez zuen halako operazio batean sekula parte hartu. Guardia Zibila txosten hau 2001etik ari zen prestatzen, eta Garzoni aurkeztu ziotenean, honek ez omen zuen onartu. Ondoren, Del Olmori aurkeztu zioten sekretupean dagoen txosten hori, eta honek bai onartu zuela, eduki ikusi dugun moduan. Beste adar baten aurrean egon gaitezke.

• Eta nondik nora joan daiteke adar hori?

Auskalo! 14.000 orrialdeko txosten bati buruz ari gara. Galdeketatik jasotako datuek erakusten dutenez, "fronte mediatiko-kultural" hori ari da ikertzen Guardia Zibila. Orain, hortik nondik nora joko duten, hori zaila da esatea. Euskal kulturarekin eta komunikabideekin zerikusia duten denak, herri aldizkariak barne, ez dira ikerketatik urruti ibiliko.

• Behin eta berriro ari gara esaten babeserako aukerarik ez dagoela, juridikoki behintzat. Maila politikoan erantzun behar al da, beraz?

Bai, honi maila politikoan eman behar zaio erantzuna, bestela alferrik ari gara. Nire ustez, euskal herritarrok zenbat eta garbiago izan denok batera erantzun behar dugula halakoen aurrean, orduan eta hobeto. Eta erantzun ez ezik, eraiki ere egin behar da. Edo hasten gara benetan gure komunikabideak eraikitzen, gure komunikazio esparrua eraikitzen, prentsa lokala sustatzen, edo alfer-alferrik gabiltza. Eta politikoei esan behar zaie hori dela beraiek bultzatu behar dutena.

• Bai, baina sortzen den hori nolabait *blindatu* al daiteke gauden egoera honetan? Hala utopia batez ari gara?

Hori oso zaila da. Argi dagoena da *Egunkaria* bezalako enpresa bat horrela itxi dutenean, urtero auditatzen zen enpresa bat horrela itxi dutenean, bere kontuak urtero Eusko Jaurilaritzari aurkezten zizkion enpresa bat horrela itxi dutenean, horretarako gai direnean beste edozer xitekoki gai direla. Eta argi eta garbi esan behar da: Espainiako Auzitegi Nazionalaren azpian gauden bitartean, oso zaila daukagu.

• Beste esparru baten beharraz ari zara?

Argi baldin badago esparru honetan sortzen dugun edozer gauza arriskuan dagoela, beste egitura politiko bat behar da, Espainiako Auzitegi Nazionalaren konpetentziatik kanpo egongo dena, horrek denak esan nahi duenarekin.



'Egunkaria'-ren aldeko herri batzordekoak materiala saltzeko mahaian martxoaren 30ean. / NEREA ARANBURU

HARPIDETZAK ETA BONOAK LORTZEA XEDE

Euskal Herriko beste hainbat herritan bezalaxe, Azpeitian ere lanean ari da 'Egunkaria'-ren aldeko batzordea

Ion Aranburu

Azpeitian ere sortu da 'Egunkaria'-ren alde lan egiteko herri batzordea. Taldea zabala da eta herriko eragile desberdinez gain, norbanakoz osatuta dago. Azpeitian eragile hauek daude une honetan lanean: Ikasberri Azpeitiko Ikastola, Azpeitiko Karmeko Etxegarai Ikastola, Iraurgi Ikastetxeko Normalkuntza taldea, EHE, AEK, Uztaria Kultur Koordinadora, Baite Euskara Elkarte, Sozialista Abertzaleak, ELA, LAB, EHNE eta Azpeitiko gazte mugimenduko hainbat talde.

"Euskarari eraso egin diote, gogor egin ere, euskaldunon euskarazko egunkari bakarra

itxi dutelako, eta horren aurrean Azpeitian ere antolatu beharra dagoela ikusi dugu", diote herri batzordekoek.

Egunkaria-ren ixtea salatzea eta euskarazko egunkari berriaren proiekturako lan egitea —harpide berriak eginez eta bono laguntzak bilduz— dira herri batzordearen egiteko nagusiak. Euskal alfabetatuen %5 harpide egiteko helburua dute euskarazko egunkari berriaren proiektuko arduradunek, eta Azpeitian, beraz, 450 harpide inguru lortu nahi dira. *Egunkaria* itxi aurretik herrian egunero 120 bat ale saltzen ziren.

BESTE HIRU LAN ARLO.

Harpideak lortzeaz gain, herri batzordeak beste hiru lan arlo ditu: harremanak, materiala eta diru bilketa. Harremanetan dabiltzanak, herriko beste eragileekin harremanak izateaz arduratzen dira, sare bat osatuz. Materialaren arduradun den taldea, berriz, *Egunkaria*-ren aldeko materiala saltzeaz arduratzen da; hala nola, txiskeroak, elastikoak eta intsigniak.

Egunkaria-ren aldeko herri batzordea asteazkenero bildu ohi da Aitonena I-en, 20:30ean. Batzordeak herriko edozein eragile nahiz norbanakoentzat ateak zabalduta ditu. "Izan ere, zenbat eta jende gehiago izan *Egunkaria*-ren alde lan egiteko, ekintza gehiago egiteko eta antolatzeiko aukera izango dugu", diote batzordekoek.

UDAL MOZIOA.

Azpeitiko Udalean martxoko udalbatzarrean Kontseiluak *Egunkaria*-ren itxiera dela-eta aurkeztutako mozioarekin guztiz ados ez zeudelako, EAJ eta EA alderdiek beste mozio bat aurkeztu eta onartu zuten. Azpeitiko SA abstenitu egin zen. "*Egunkaria*-ren berehalako irekiera eskatzen du" onartutako mozioak, "atxilotuek jasandako torturak gaitzesten ditu; euskara eta euskal kultura indarkeriarekin etengabe lotu nahi izana salatzen du; *Egunkaria*-ko zuzendaritza eta langileei elkartasuna adierazten die eta euskarazko prentsa mantentzeko eta sortzeko konpromisoa adierazi du".

laguntzeko moduak

Hiru modu

● **HARPIDETZAK.** Hori da *Egunkaria*-ri laguntzeko modurik onena. Harpidetzaren bitartez egunkariak urtero gutxieneko sarrera batzuk bermatzeaz gainera, irakurle kopuru sendoa izatea ere ziurtatzen baitu. Harpideek apirilaren 8tik aurrera eskatutako tokian jasoko dute *Egunero* 08:00ak baino lehen, eta aurrerago egunkari berria. Urtean 275 euro kostatzen da harpidetza. Berau hiru modutan ordaind daiteke: hiru hilean behin, sei hilean behin edota urtean behin. Harpidetza txartelak herriko hiru dendatan daude: Urbistondo Margoak (Sanjuandegi auzoan), Luba aholkularitzan (Enparan kalean) eta Sarea Informatikan (Pablo VI.a auzoan). Uztarriaren egoitzan ere egin daiteke harpidedun. Baita *Egunero*-ren telefono zenbakietara deituta ere: 943 30 35 55 edota 943 30 35 54.

● **BONO LAGUNTZAK.** Bono laguntzen bidez ere lagun daiteke *Egunkaria*. Laguntzeko bi eratako bonoak daude: 50 eurokoak eta 300 eurokoak. 50ekoak norbanakoei erosteko aurreikusita daude eta 300ekoak, berriz, enpresek erosteko. Bonoak Urbistondo Margoak, Sarea Informatika, Luba aholkularitzan eta Uztarriaren egoitzan eros daitezke. Bonoetako dirua gorde egingo da, gero egunkari berriaren enpresako akzio bihurtzeko.

● **MATERIALA.** *Egunkaria*-ren aldeko materiala ere salgai dago zenbait tabernatan: txiskeroak, intsigniak eta elastikoak. Uztarriaren egoitzan ere eros daiteke. Bi elastiko desberdin daude: haurrentzat eta helduentzat. Haurrentzakoek *Xingola*-ko marrazkia dute eta besteek Zakilixut-en marrazkia edo *Egunkaria Aurrera!* leloa. Hamar euro balio dute.

astelehen karnabalean 'Egunkaria'-ren alde ateratako irudiak



ELKARTASUN EGUNAREN ARRAKASTA, IRUDITAN

Milaka azpeitiarrek 'Euskaldunon Egunkaria'-ren alde egin zuten martxoaren 13an



PLAZA BETETA. 700 azpeitiar bildu zen udaletxe aurrean 11:30etatik 12:30ak arte. Ikastetxe eta ikastoletako irakasleak, dendariek, ikasleak... bildu ziren bertan *Egunkaria*-ren alde egiteko. Arratsaldean, beste elkarretaratze bat egin zen, 20:00etan, eta orduan 200 lagun elkartu ziren *Egunkaria*-ren aldeko e0lkartasun egunari amaiera emateko.



KALEAK HUTSIK. Alde zaharra jendez hustu zen lanuztearen orduan. Azpeitiko ia denda guztiek itxi zituzten atea ordubetez. Kaleak hustu eta plaza bete egin zen jendez. Dendariek, gainera, atean *Egunkaria aurrera! Itxita* zioten kartelak jarri zituzten.



NEREA URANGA

LANTEGIEN ATARIETAN. Azpeitiko enpresen aurrean langileen elkarretaratzea nagusitu zen, *Egunkaria*-ren alde sindikatuek deitutako lanuzteari erantzunez. Irudian, Aceraliako langileek egin zuten elkarretaratzea. Industrieguneetan ere kontzentrazio jendetsuak egin ziren martxoaren 13an.



NEREA URANGA



NEREA URANGA

ESKOLETAN ERE 'EGUNKARIA'-REN ALDE. Azpeitiko ikastola eta ikastetxeek ere *Egunkaria*-ren aldeko elkartasun egunean parte hartu zuten.

BAI 'EGUNKARIA'-RI!

Kontseiluak martxoaren 13rako *Egunkaria*-ren alde mobilizatzeko deitu zuen eguna arrakastatsua izan zela baloratzen du Azpeitiko ELA sindikatuak.

Azpeitiko enpresa handi denak gelditu egin ziren: Marcial Ucin, Biele, Azcue, Samic, Mallas, Pemec, udaletxea, Sarralle... eta baita enpresa txikiagoen gehiengoa ere. Arratsaldean, Bilbon Casillan ospatu zen ekitaldira ere Azpeitiko 30 bat ordezkari eta afiliatu hurbildu ziren.

Enpresatan *Egunkaria*-ko harpidetzak bultzatzeko kanpaina ere martxan jarrita dago dagoeneko, eta oraingoz harpidedun egin diren enpresa batzordeen artean Biele, Mallas, Altuna Uria... daude.

Azpeitiko ELA

'EGUNKARIA' AURRERA!

Oso erantzun egokia eman zuen Azpeitiko langilegoak *Egunkaria*-ren Elkartasun Egunean. LAB sindikatuak delegatuen batzarra egin zuen martxoaren 7an, *Egunkaria*-ren itxiera eta Euskal Herriaren aurkako erasoei buruz hausnartzeko, eta egoera honi eraikiz erantzuteko. Asanbladak egin ondoren, ordubeteko lanuztea egin zen lantoki guztietan, eta langile andana batek hartu zuen parte antolatutako kontzentrazioetan, Landetako Roton-dan, Bielen, Aceralian, Sammicen.... LABeko ordezkari eta komiteetara harpidetza orriak banatu dira, eta LABek bere ordezkari du *Euskaldunon Egunkaria Aurrera!* Azpeitiko Herri Batzordean ere, harpidetza eta bono laguntzen gaia lantzeko. LABeko delegatuak zoriondu behar dira eman duten erantzunagatik eta egiten ari diren lanagatik.

Azpeitiko LAB

astelehen karnabalean 'Egunkaria'-ren alde ateratako irudiak



HIRU HERRITARREN LEKUKOTZA ZUZENA SORRERAN

Imanol Lazkanok, Xebaxtian Lizasok eta Pako Aristik parte hartu zuten 'Egunkaria'-ren sorrerako taldean, eta proiektua hasieratik "zabala" izan zela azpimarratu dute

Enekoitz Esnaola

Orain, *Euskaldunon Egunkaria*-ren bortsazko itxiera dela eta, batzuk *Egunkaria*-ren sorreraren zabaltasuna eta produktaren aniztasuna ezbaian jartzen ari diren honetan, Uztarriak *Egunkaria*-ren sorrera gertu-gertutik segitu zuten eta bertako protagonista izan ziren hiru azpeitiarregana jo du: Imanol Lazkano eta Xebaxtian Lizaso bertsolariengana, eta Pako Aristi idazle eta kazetariarengana, hirurak ere *Egunkaria* Sortzen-eko (ES) kide izan zirelako, motor lana egin zuen taldeko kide.

1990eko hondarrean sortu zen *Egunkaria*, baina proiektua urtebete lehenago hasi zen mamitzen, ESren bitartez. Hain zuzen, 1989ko azaroaren 1ean eratu zen ES, Donostian egin zen deialdi zabal batean. Euskal Herriko hainbat norbanako ezagun bildu zen, eta lehen aipatutako hiru azpeitiarrak zeuden 75 lagunekoz zerrendan.

"Lehenengo kanpai hotsak jo zituztenak Joxemi Zumalabe, Joseba Jaka eta Joan Mari Torrealdai izan ziren, Martin Ugalderen babesarekin. Euskarazko egunkari bat ateratzeko proiektua egin behar zela zioten, eta sektore askotako ateak jo zituzten", dio Xebaxtian Lizasok. Euskal Herriko Bertsotzale Elkartearen izenean Imanol Lazkano, Jon Lopategi eta hirurok geunden taldean. Han bakoitzak bere lanak zituen, eta diru bila joatea izan zen niri hasieratik tokatu zitzaidan lana".

Imanol Lazkanok eta Pako Aristik barrura begira ez zuten horrelako lanik egin. "Kantopotik egin genuen gehiago", dio Aristik. "Neuk orduan *El Diario Vasco*-n jarduten nuen lanean, kolaboratzaile bezala, *Zabalik* euskarazko gehigarrian, eta astero elkarriketak edota erreportaiak egiten nituen. ETB1en ere banengoen, *Babel* programan gidoilari, eta Martxelo Otamendi bera zen programako aurkezlea. Liburuekin ere ba-

nenbilen eta, beraz, ez neukan denbora askorik *Egunkaria* Sortzenen lan egiteko. Baina proiektuak halako babes soziala eta kulturala behar zuen, eta han izan ginen".

Hiru azpeitiarrak ezagunak ziren orduan: Imanol Lazkano Euskal Herriko Bertsolari Elkarteko lehendakaria zen 1985etik, Xebaxtian Lizaso Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako txapeldun izana zen 1986an eta bigarren 1989an, eta Pako Aristik hainbat lan eginak zituen kazetaritzan eta liburugintzan (*Kcappo* nobela aterata zeukan ordurako, 1985ean). "Proiektuari zabaltasuna eman behar zitzaion, beharrezkoa zelako proiektua zabala izatea, eta ESko kide izatea proposatu zidatenean ez nuen dudarik egin baiezkoa emateko", esaten du Lazkanok.

BI PROIEKTU. Euskarazko egunkaria sortzea zuten helburu, proiektu handia, interesgarria, ilusio handia sortzen zuena, baina ez ziren garai errazak izan, arazo askorekin topatu zirelako sortzaileak. "Nolabait esanda, kultura bikoiztua zegoen garai haietan. AEK alfabetatze erakundea zegoen, HABE ere bai. *Hemen* euskarazko astegunkaria zegoen, *Eguna* ere bai. Eta *Egunkaria*-ren proiektua zegoen, eta Eusko Jaurlaritzaren proiektua ere bai. Hau da, batetik ezkerreko jendearen kultur proiektuak zeuden, eta bestetik erakunde publikoetako edo EAJren inguruko jendearen proiektuak. Euskarazko egunkariari dagokionez, niri, behintzat, amorrua ematen zidan egoera hark, baina *Egunkaria*-ren alde egin nuen", dio Pako Aristik.

Herrietan *Egunkaria*-ren aldeko 185 batzorde sortu ziren —Azpeitian haietako bat—, eta Lizasok dioenez, "garai beltz"

“Proiektuari zabaltasuna eman behar zitzaion, eta *Egunkaria* Sortzen-eko kide izatea proposatu zidatenean baiezkoa eman nuen”

Imanol Lazkano
(bertsolaria)

“Ikus-min handia zegoen ‘*Egunkaria*’-ren sorrerarekin; nik ez nuen sinesten sortuko zenik lehen zenbakia ikusi arte”

Pako Aristi
(idazlea eta kazetaria)

“Gerora hasi ziren udal batzuk bustitzen, baita beste batzuk begiak zabaltzen ere, mamu haiek egia ez zirela ikusten”

Xebaxtian Lizaso
(bertsolaria)



haietan herri batzordeek, eta "baita enpresako komiteek eta sindikatuek ere, asko lagundu zuten" dirua biltzeko orduan. "Beste lagun batzuk batik bat enpresatan eta udaletan ibili ginen. Udaletan dirua biltzea oso-oso zaila zegoen, goitik agindu hau zutelako: 'Guk beste egunkari bat sortuko dugu. Aurretik *Egunkaria* izenarekin beste bat jaiotzen bada, sei hilabete baino gehiago ez du iraungo, zuzendaritzan badakigu zein izango diren...'. Beraz, mantxadun famarekin sortu zen *Egunkaria*. Baina diru dezente bildu zen". Lazkanoren iritziz, mamuak zabalitze hori "aitzakia besterik ez zen, gauzak erabaki, *Egunkaria* Sortzen taldean baino ez zirelako erabakitzen".

Eta *Egunkaria* sortu zen. 1990eko abenduaren 6an. "Ikus-min handia zegoen", oroitzen du Pako Aristik. "Niri soldadutzare-

kin bezala gertatzen zitzaidan. Hau da, beti nengoen soldadutzaren kontra, beti egiten nuen amets bere amaierarekin, baina soldadutzarik ez zegoela ikusi arte ez nuen sinesten amaituko zenik. *Egunkaria*-rekin ere antzera: beti alde, beharra ikusten genuelako, baina lehen zenbakia kalean ikusi arte ez nuen sinesten sortuko zenik".

BI URTE IRAUNEZ GERO... Joxemi Zumalabe zena izan zen proiektuaren buztatzaile nagusietakoa, eta haren esaldi bat dakar gogora idazle eta kazetari urres-tildarrak: "*Egunkaria* itxi dutenetik, komunikabideetan Zumalaberen esaldi bat behin baino gehiagotan azaldu da. Hauxe: 'Bi urte irauten badugu, irabazi dugu'. Nik uste esaldi horrek islatzen duela ES taldean pentsatzen zena". Eta iraun zuen.

Egunkaria sortu eta urte batzuetara hasi ziren hasieran kontra —edo ez alde— zeuden enpresak eta erakundeak diruz laguntzen. Lizaso: "Orain dela hamar bat urte akzio zabaltze kanpaina egin zen eta udal batzuk busti egin ziren, eta beste batzuk pixkanaka hasi ziren begiak zabaltzen, mamu haiek egia ez zirela ikusten".

1994an Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena sinatu zuen *Egunkaria*-k, Joseba Arregi zela Kultura sailburua. "Arregik han sinatu behar izan zuen hitzarmena, gerra galdue- ren aurrean errendizioa sinatzera doan generalak bezala", dio Aristik.

Orain, euskarazko beste egunkari bat sortzeko pausoak ari dira ematen *Egunkaria*-ko langileak. "Nik garbi dut berriz ere nigan etortzen badira, ni hor izango naizela, laguntzen", esaten du Lazkanok.

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA



J.M. Iparragirre B.H.I.
Santa Barbara Bidea z/g
Urretxu 20700
Tel./Faxa: 943-721413/721403
jmiparragirre@edunet.es

Erizain laguntzailea

Osasun familia. A-D eredueta

TITULAZIOA

- Erizaintzako laguntzaile-teknikaria

IRAUPENA

- 1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu)

LANBIDE ETORKIZUNAK

- Ospitaleko erizain laguntzailea
- Lehen artapenetako laguntzailea
- Kontsulta pribatueta
- Zaharren egoitzetan
- Hortz-kliniketan laguntzailea
- Gaixoen zaintza

Oharra: ikasleen garraiorako dirulaguntza aurreikusten da

astelehen karnabalean 'Egunkaria'-ren alde ateratako irudiak



Txema Auzmendi

'Egunkaria'-ko Administrazio Kontseiluko idazkaria; Iraurgiko irakasle ohia

Auzmendi, bederatzi euskaltzalerekin batera atxilotu zuen Guardia Zibilak. Azpeitian, Iraurgi ikastetxean irakasle aritu zen hiru urtez

“Atxilotu ondoren umiliatu egiten zaituzte”

Nerea Uranga

Hor al dago Txema, elkarrizketa egin nahi diogu eta?”, galdetu genuen Donostiako Herri Irratian, Txema Auzmendik kartzelatik irten eta bi egunera. Han zegoela erantzun ziguten, baina bilduta zela, eta emateko telefono zenbakia, Txemak deituko zigula eta. Baita deitu ere. Horrelakoa baita.

● Bermepean irten duzu kartzelatik. Gogorak izan al da dena, Txema?

Oso gogorra, batez ere lehen bost eguneko inkomunikazioa. Hura infernua da, inori ez diot opa. Txar-txarra, gizakia ez zarela pentsa dezakezu; nik ez dut pentsatu baina gauzak horretarako daude eginak. Beti burua makur eta begiak itxita, umiliatuta.

● Kartzelaldian euskara, alemana erakusten... aritu zara.

Euskaldun jator bati, Sendoa Gonzalezi, euskara erakusten jardun nuen. Euskaraz mingaina askatzea behar zuen. Alemana ikasi nahi zutenak ere baziren eta haien irakasle hasi nintzen. Bizpahiru eguneko kontua izan zen.

● Kanpoko erreakzioen eta mugimenduen berri nola jakin zenuen kartzelari?

Espetxean irradian eta telebistan entzundako zertxobait jakin genuen. Espetxean

euskaldunak zeuden eta guk baino zerbait gehiago zekiten, batek Euskadi Irratia entzutea lortzen baitzuen noizik behin. Prentsa iristen ere hasi zen; hiru edo lau eguneko atzerapenez iristen zitzaigun *Egunero* edo *Gara*.

● Egunero jaso eta zer sentitu zenuen?

Poz handia. “Bere txikian errealitate sendoa zen proiektua aurrera doa, eta sendotu dute han daudenek”, pentsatu nuen. Aspaldi jende asko bildu zen proiektuaren inguruan, baina orain hareago.

● Egunkaria-ren alde hainbeste jende mugitu izana nola hartu duzue?

Poz handiz. Atxilotu ondoren gaizkiletzat hartzen. Epailearen aurrean Joxe Mari Elosua abokatua entzun nuenean Joan Mari Torrealdai eta bion aldeko defentsa egiten, emozionatu egin nintzen. Gure alde ari zen pertsona onak ginelakoan, ez gaizkileak eta ez dakit zer. Gero, kalean

horrenbeste pertsona gure alde, *Egunkaria*-ren alde agertzea, izugarria da.

● Madriletik euskararen kontra jo dutelako izan al da horrelako erreakzioa?

Hori garrantzitsua izan da. Zorionez, baze goen *Egunkaria*-ren inguruan irakurlego sendoa, eta sendotzen joan dena: talde handia lanean, inplikazio handia zegoen... Euskarari eta herri honi begira *Egunkaria*-k pisu handia du. Pisua esan nahi dut: eragina, trinkotzen laguntzen duena hizkuntza eta herri mailako, nazio mailako, kontzientzia horri eutsi eta zabaltzen duena. Horrek bere erantzuna izan du. Atzean pertsonak daude: kazetariak, argazkilariak eta gu. Torrealdai bezalako pertsona bat egotea, euskal kulturaren erreferentzia dena; Martxelo Otamendi, ez da edonor; Pello Zubiria, *Argia*-ri lotua urteetan; ni beste esparru batzuetan ezaguna, irradian dela eta abar. Horrek ere zenbait eman dio zer pentsatua esateko: “Hauek ere harrapatzen badituzte, gauza baldin badira... inkomunikatuta badituzte, gauza onik ez”.

● Zeu zinen atxilotuen artean Azpeitiarekin nolabaiteko lotura zuen bakarra, 1985-1988 artean Iraurgi Ikastetxean egon zinelako irakasle...

Bai, hala da. Mexitotik eta Ameriketako Estatu Batuetatik nentorren 1985ean. Ez nuen inoiz pentsatuko Loiolako etxe handi

“ ‘Egunkaria’-ren proiektu berria, dagoen errealitatetik abiatu behar da, egunkari bat egiten dakiela erakutsi duen talde bat badagoelako”



IRAURGIN. Txema Auzmendi Azpeitian ere lan eginda badago, 1985-1988ra Iraurgi Ikastetxean aritu baitzen irakasle. Argazkian (zutik ezkerretik aurrena da), 1989an, Azkoitian, Iraurgiko lankide batzuekin.



horretan biziko nintzenik. Bilbora, Donostiara edo Iruñera etortzea eskatu nuen, euskarazko eskolak emateko aukera nuelako gau eskoletan. Era berean, Josulagunen komunitate txiki baten euskaldunen artean bizi eta kristau elkarte nagusiekin lan egiteko asmoa nuen. Nagusiak onartu egin zidan eskaria eta hilabete pare batera beste proposamen bat jaso nuen: Loiolatik josulagun bat joan zela eta ni etorriko al nintzen Loiolara. Orduan, josulagunek izan nahi zuten gazteentzako seminario bat zegoen. Nik seminario hori ez bultzatzea erabaki nuen, zentzurik ez zuelako hamahiru-hamalau urteko bost-sei gaztetxo han edukitzea. Beraz, eskolak ematera dedikatu nintzen, gustura, Iraurgin, eta gazteekin pastoraltzan nire lagun Manu josulagun maitagarriarekin aritu nintzen. Azpeitian bi apaiz zeuden etorri berriak, jator-jatorrak: Patxi eta Kepa. Jende jatorra, bikote batzuk-eta lagun egin nituen. Euskal munduan Bilbon egon nintzenean sartu nintzen buru-belarri, baina erdal giroan gehienbat, nahiz eta Bilboko nire komunitatea euskalduna izan. Baina Azpeitikoa euskal munduan bene-benetako inmersioa izan zen, ez dakizu nolako gozamena eta nolako oroitzapenak ditudan uneez, Jose Luis Otamendiz, Iraurgiko lagun on batzuez eta beste kanpoko batzuez. Arlo guztietan euskal mundua bizi ahal izatea niretzat bedeinkazio izugarria izan zen.

● **Egunkaria-ren gaira etorrita berriro, nolakoak izan beharko luke berriak?**

Dagoen errealitatetik abiatu beharko da, talde profesionala dago, egunkaria egiten dakiela erakutsi duena. Hobetzea beti posible da, are dirua badago. Gauzak ere hobeto egin daitezke: aniztasunean, euskara hobetzeko orduan, zuzentzeko pertsona gehiago... Eta horren itxaropena badut, gaitasuna duen jendea badago. Betiere instituzioak, Eusko Jaurlaritza egunkariaren jabe izan gabe; bestela, kaltegarria litzateke.

● **Egunkari berrian zerba it aportatzeko asmorik edo gogorik ba al duzu?**

Ni prest. Kartzelaldi eta inkomunikazioaldiak ez dit gogorik kendu, alderantziz. Beti izango naute gertu nire txikian ahal dudana emateko edo laguntzeko. ●

EGUNERO

datue

8 kilometroko ibilbidea egingo du Azpeitian Korrika 13k, apirilaren 6an. 11:00ak inguruan hartuko du Azpeitiko herriak lekukoa Lasaon, eta Munategin pasatuko dio lekukoa Azkoitiko herriari.

dato historikue

56 urte beteko dira apirilaren 13an Lagun Onak Mendi Bazkunak Ertxin mendian (Zestoan) buzoia jarri zuela.

esaldiye

“Herri kontzientzia duten herriek kontzientzia horrek bultzaturik lantzen dute historia”

Manex Goienetxe
(historialaria)

liburutik ttak

“Hona datu deigarri bat: euskal gizartearen barruan prentsa-kontsumoaren, erabilearen eta ideologiaren artean dagoen erlazio eztabaidatsua. Halatan, Euskal Herrian saltzen diren egunkarien %75,2 ez-nazionalistak badira ere (Euskal Herrian edo Madrilén argitaratuak), EAEko Legebiltzarreko aulkien %52 alderdi nazionalistak okupatuak dira. Haustura hau ez da Nafarroan gertatzen, hedabideen kontsumoa eta hauteskunde ordezkariaren proportzio neurtuagoan baitaude”.

‘(in)komunikazioaren atarian. Prentsa eta euskal gatazka’. Petxo Idoyaga eta Txema Ramirez de la Piscina. Zerberri, Alberdania argitaletxea. 2002. urtea.

kontue da... Imanol Elias Odriozola (idazlea)

AZPEITIAK BAT
ORINOCON (I)

Beharrezkoa egingo da seguruenik, ito ezinezko zerbait sortzea barnean, azpeitiar Joxe Iturriaga sartu zen abentura handi bateko kide izateko; bestela ere, ezer gutxi faltako zitzaien nahi bezala bizitzeko.

Azpeitian jaioa zen 1699an eta bertako alkatetzaren ez ezik, Gipuzkoako diputatu nagusi eta Caracasko Gipuzkoar Konpainiako zuzendaria izan zen. Baina Espainia eta Portugalen artean lurraldeak banatzeko akordioa sinatzean, 1750eko urtarilaren 13an, prest izan zen lau urte geroago lan hori betetzeko Orinocora egingo zen espedizioaren buru eginik, 55 urterekin alajaina. Carvajal ministro espainiarrak izendatu zuen taldearen buru eta berekin eramango zituen besteak beste, suediar botanikoa Pehr Löfling jaunaren esanetara.

Lurraldeko mapak osatu behar zituen espedi-

zioak, baina azpeitiarrari isilean eman zitzaizkion aginduen artean adierazi zitzaion zer lan zuzendu beharko zuen suediar jakintsuak: batez ere, kanela oihañak aurkitu, aurrez Indiako kronistak aipatzen zituzten lurraldeetan, ongi aztertuz kalitatea.

Gaur egun, harrigarria iruditzen bazaigu ere, orduan sekulako dirutza mugitzen zen kanela merkataritzaren inguruan eta guztiz bereganaturik zuten bere merkataritza holandarrek, Ceilanderik ekartzen zutena saldua.

Joxe Iturriagak, Cadizko portutik 1754ko otsailaren 15ean irten zuen bi itsasuntzirekin: *La Veneciana* eta *La Santa Ana*. 54 egun itsasoan igaro ondoren iritsi zen espedizioa Cumana hirira, orduan Venezuelako lurraldea. Kanela ez ezik, kakaoa eta sendagaitzarako beste landare batzuk aurkitu nahian egiten zen

garai bateko Azpeitiye ...Ramon Altolagirrek kontatua

Urteetan apustuak nagusi

Betidanik entzun izan dugu euskaldunok apustu zaleak garela, baina apustua galtzeko arriskuan egon liteke

Nerea Aranburu

Jende askok gogoan izango ditu oraindik ere garai batean egiten ziren kirol apustuak, batik bat herri kirolekin. Askok izan dira historian zehar, eta, zehazki, Azpeitian bertan egin diren apustuak.


Ramon Altolagirreraren hitzetan, “lehen, garai haietan kirola jolasa bezala hartzen zuen jendeak. Jokorako askoz ere grina handiagoa azaltzen zuten orduan, orain jendeari falta zaiona. Eta apustuak ere ugari, orduan apustu asko ikusteko aukera izaten baitzen. Nahiz eta kirol gehienetan egin apustuak, bereziki herri kirolekin izaten ziren, bai aizkoran, harrijasotzen eta abar”.

Euskal Herriko leku askotan egiten ziren herri kiroleko demak. Hala ere, Gipuzkoa aldeko gehienak Azpeitiko eta Tolosako zezen-plazetan jokatzeko ziren. “Urte haietan jende asko inguratzen zen zezen-plazetara apustuak ikus-

tera, ikus-min handia sortzen zutelako apustu haiek. Hori dela eta, askotan zezen-plazak bete egiten ziren”.

Garai haietan, urtean zehar apustu asko ikusteko eta gozatzeko aukera izaten zuen jendeak. “Ez dakit zehazki zenbat izango ziren, baina asko, batez beste zortzi-hamar apustu antolatzen ziren urtean. Gaur eguneko egoerari begiratzen badiogu, aldiz, guztiz alderantzizkoa gertatzen da; orain urtean bi edo hiru apustu ikusteko aukera dago, eta urte batzuetan apusturik ere ez da izaten”.

ERA GUZTIETAKOAK. Kirolaren munduan mota guztietako apustuak egin izan dira. “Gogoratzeko dut 1948. urtean egin zen aizkori apustua. Orduan zezen-plaza guztiz bete zen. Apustua jokatu zutenak *Arria* eta *Korta* aizkoriak izan ziren”, dio Ramon Altolagirrek. Baina beste era bateko demak ere egin izan dira Azpeitiko zezen-plazan. “1941. urtean



Venezuelako Orinoco ibaiaren irudi bat. / UZTARRIA

● **ESPEDIZIORA.** Joxe Iturriagak, Cadizko portutik, 1754ko otsailaren 15ean, irten zuen espedizioan bi itsasuntzirekin

espedizioa zen, bide batez aipaturiko bi nazioen arteko lurralde mugaketa eginez.

Dena prest zuen azpeitiarrak, eta Lofling botanikoak irten zuen bere marrazkilariekin eta landare bilketa egingo zutenekin, eta bera, berriz, gelditzen zen taldearekin ibaian aurrera.

abizena

URANGA


● Banaketa semantikoa.

- Ur-: ura.
- -anga: nahasia.

● Esanahia. Ur nahasia.

● Armarria.

Urrea egin dako harkaitz arran bat. Sinoplezko karraskak sortzen dira. Zeharka basurde bat doa ehiztari bat azkon batekin atzetik duela.



● Abizenaren kokapena.

- Azpeitia.
- Antzuola.
- Bergara.
- Gernika.
- Bermeo.
- Argentina.

● Abizenaren hedapena.

- Zestoa.
- Beizama.
- Azpeitia.
- Azkoitia.
- Santiago.

'www.paisvasco.com/heraldica.' webgunetik hartua dago.

komunikabidiek

ABERTZALEAK MASOKISTA

Honatz zer zioen Xipri Arbel-bide kazetariak martxoaren 26ko *Egunero*-n: "1978an sortu zen *Egin*, 46.000 ale botatzen zituela. 1998an 52.000tan zen. *Deia* 67.000tarik 30.000tara jaitsi da. *Egun-karia* 15.000tan da. Titulu bat gehiagorekin 16.000 ale galdu ditugu abertzaleok! Prentsa abertzalea ez da 100.000 aletara heltzen, Espainola 355.000tan delarik. Abertzaleak masokistak ote litezke beren kontrako prentsa horrela irensteko, xerri ttipiek gaxura bezala!". Badirudi baietz, abertzaleak masokistak direla...



Anton Soraluza Korta, Azpeitiko zezen-plazan.

“Jokorako askoz ere grina handiago azaltzen zuten orduan, orain jendeari falta zaiona”

Ramon Altolagirre



beste apustu sonatu bat egin zen gure herrian; *Kataolatza* eta *Korta*-ren artean jokatu zen eta hiru modalitatekoa izan zen: harri jasotzen, aizkoran eta ondoren zezen-plazan bertan lasterka”, dio Altolagirrek.


ETORKIZUN ZAILA. Nahiz eta urte askotan apustuak indar handia izan, “gero eta gutxiago egiten dira apustuak. Lehen, jendea diru eta gauza gutxiren jabe zen, baina jokorako grina eta gogoia bazuen”. Hala ere, nahiz eta gero eta gutxiago izan, oraindik ere antolatzen dira batzuk. “Gaur egun, apustuak baino gehiago *exibizioak* egiten dira herri kiroletan. Gertatzen den beste arazoa da ez dagoela jenderik, jendea falta da herri kiroletan”. Etorkizunari begira jarritz gero, “oso zaila dagoela ikusten da eta baliteke hemendik urte batzuetara apustuak galtzea”.

gertuko pasadizue

JARRERA JATORRA ESKERTUZ

● **MIGUELITO SARRALLE:** "Urbitetxo baserri inguruan, zer topatuko nenbela bi zakurrek zaunkaka eraso zidaten. Susto ederra eman zidaten. Baserriko nagusia inguruan zebilen eta irrifar gozoz egun onak eman eta esan zidan: 'Zer habil motel?'. 'Hementxe latan! Udaberriko argazki lehiaketie dakeu ta gaye baserriye deu. Hemen ai naiz zeoze politte billau nayan'. Borondate osoz ikulura joan eta segarekin lanean jarri zitzaidan patxara ederrean. Argazkia ez zuen ikusi, egun gutxira Zubimenditar Isidro utzi egin gintuen".

'Azpeitia argazkitan'-etik hartua. Azpeitiko Udalak argitaratua. 2001. urtea.



Isidro Zubimendi. / M. SARRALLE

zientzia

EUSKAL KOMUNITATE ZIENTIFIKOA

Inguma (www.inguma.net), Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz, Udako Euskal Unibertsitateak sortutako datu basea da. Bertan, azken 30 urteotan euskaraz eta unibertsitate mailan produzitzen diren dokumentuak eta beraien egileak jaso dira. Egilearen izen-abizenekin batera, posta elektronikoa aipatzen da. Hala, euskal komunitate zientifikoaren kideen arteko komunikazioa eta elkar eza-gutza ahalbidetu nahi da.

osasune Julian Bereziartua (medikua)



LISIBA, ENTSALADEN OSAGAI GOMENDAGARRIA

● **GARBI.**
Barazkiak
ondo
garbitu
behar
dira

Lisibaren zaporea ez dirudi sukaldaritzarako denik... Kanileko ura erabiltzen badugu, kontuan izan behar da indarrean dagoen legedia betetzen duen edo ez. Erantzuna baiezkoa bada, gordinik jaten diren berdurak eta begetalak garbitzeko urak ez du lisiba beharrik; baina kontrolik gabeko iturritik datorren ura bada, nahiz eta menditik zuzenean etorri, gomen-dagarria da lisiba erabiltzea.

Beti gomendatu dugu, urez betetako ontzian sartuta ez edukitzea letxuaren hostoak adibidez, bitamina asko galtzen baitute, baina lehen aipatu ditugun kasuetan ahaztu ditzagun oligoelementu horiek eta horrela,

zenbait gaixotasun saihestuko dugu: beherakoak, botakak edo gibelean kiste hidatidikoren bat izatea. Bost litro ur dituen ontzian, lisiba kontzentratuaren tanta bat litroko nahikoa da garbiketa kimikoa eta bakterio-logikoa egiteko.

Gaur egun, tratamendu egokirik gabeko ibaietako urez ureztatzen dira baratzak, eta baratzetako elikagaiak iturriko urez eta lisibaz ondo garbitzen ez badi-ra gaixotasunak ekar ditzakete. Hogei minutuz ura irakinez gero seguru geldituko gara, baina ulerterraza da lisibaren erabilera nahiago izatea, azkarragoa delako eta berezko oinarritzko osagaiak mantentzen ditu.



Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak
egiten dira



81 53 35



kutxa

gizarte ekintza



DESS

SOMIERRAK SOFAK SILOIAK KOLTXOIAK ARMAIRUA

ATSEDENAZ JAKITUNAK

KIROLDEGI AURREAN GAUDE

24 HILABETE %0 INTERESA

A Z P E I T I A

HARZUBIA HIRIBIDEA, 51

TEL./FAX 943 15 14 41

SOFA BEHAR BADUZU, BISITA GAITZATZU

Tuko

LAGUNTZA TEKNIKOAK



ADIN NAGUSIENTZAKO
ETA
EBAKUNTZEN ONDORENGORAKO
ALTZARIAK

- ✓ OHE ARTIKULATUAK
- ✓ ESKAREN KONTRAKO KOLTXOIAK..
- ✓ BAINUGELAN EGOKITZAPENA
- ✓ ESKAILERAK IGOTZEKOAK...
- ✓ GURPILDUN AULKIAK



HARZUBIA HIRIBIDEA, 51

TEL.: 605 / 707984




FEDERTi

APAINKETA - DECORACION

Ernpuran 10,

Telona eta faxa: 943.81.16

Behar duzun GUZTIA HEMEN !!



telefono zenbakiyek

ERAKUNDEAK - TOKI

PUBLIKOAK	
Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	85 10 00
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	81 25 55
Ingurugiro Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	81 51 00
Anbulategia-larrialdiak	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	81 32 97
DYA-Donostia	46 46 22
SOS Deiak	112

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria herri aldizkaria	15 03 58
Azpeitian Zer?	81 11 00
Deia (berriemailea)	72 57 75
UD (berriemailea)	15 09 94
Egunkaria	943-30 02 22
Gara (Herriak Saila)	943-31 69 99
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943-01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ - PNV	81 55 70
Batasuna	15 12 15
EA	81 00 11

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

IKASTETXEAK

Betharram	81 16 68
Ikasberri	15 12 46
Iraurgi	81 02 10
Jesusen Alabak	81 22 49
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Milagrosa	81 63 80
Urola BHI	15 02 28

KULTURA - EUSKARA

Baite Euskara Elkarte	15 03 58
Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89

Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarrria Kultur Koordi.	15 03 58
Antxieta Etxea	81 35 40
Kontseilua	943-59 12 00

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Euskaltel-informazioa	900-84 00 65
Telefónica-informazioa	1003

farmaziyek
gauetz

APIRILAK 1-16-17-18

Jaen (Azkoitia). 85 06 60

APIRILAK 2-3-4

Ruiz (Azkoitia). 85 19 66

APIRILAK 5-6-14-15

Azpiazu (Azkoitia). 85 29 89

APIRILAK 7-12-13-24-29

Etxebeste. 81 59 74

APIRILAK 8-25

Garcia. 81 12 74

APIRILAK 9-21-26-27-30

Zulaika. 15 03 34

APIRILAK 10-22

Aranburu. 81 13 50

gune
publikuek
irikite

UDALETXEA

Astegunak: 9:00-13:30
Larunbatak: 9:00-13:00

IXPIXIOA

Egun osoz irekita

IGERILEKUA

Astelehenak: 14:00-21:00
Beste astegunak: 7:00-21:00
Larunbatak: 10:00-13:00, 16:00-20:00
Kanpoko igerilekua: Ekaina arte itxita

KIROLDEGIA

Astelehenak: 9:00-13:00, 15:00-21:00
Beste astegunak: 15:00-21:00
Larunbatak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA

Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00
Aste Santuan, udan (abuztuan itxita) eta Gabonetan: astegunetan, 9:00-13:00

autobusen ordutegiyek

JOATEKO

AZPEITIA-ZESTOA-DONOSTIA

Astegunak: 6:50 (1), 7:40 (1), 8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1), 14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2), 19:45 (2)
Larunbatak eta abuztuko astegunak: 7:50, 10:00, 13:40, 15:10, 16:10, 19:15
Igandeak eta jaiegunak: 15:10, 19:15
Enpresa: La Guipuzcoana
Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 2: Sarrera Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik

AZPEITIA-EIBAR-BILBO

Astegunak: 6:30, 13:00, 18:30
Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30
Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 19:30
Enpresa: Pesa

AZPEITIA-EIBAR-BILBO

Astegunak: 6:38, 7:20, 13:20
Enpresa: Piper Unibertsitate Elkarte

AZPEITIA-AZKOITIA

Astegunak: 6:55, 7:25, 7:50, 8:25, 9:25, 9:35, 10:15, 10:25, 11:25, 11:50, 12:25, 13:25, 14:25, 14:35, 15:25, 16:25, 16:35, 17:25, 18:25, 19:15, 19:20, 19:25, 20:25, 22:25
Asteburuak eta jaiegunak: 7:00, 7:40, 8:40, 10:15, 10:40, 11:20, 12:45, 13:20, 14:40, 16:40, 17:05, 17:20, 18:40, 19:15, 19:35, 19:40, 21:35, 21:40
Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ZESTOA-ZUMAIA

Astegunak: 6:30, 7:10, 8:15, 9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10, 13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10, 18:10, 19:10, 20:10, 21:10
Asteburua eta jaiegunak: 7:25, 9:25 (2), 10:25, 11:45, 12:25, 13:45, 14:25, 16:25, 17:45, 18:25, 20:25, 21:25, 22:05
Enpresa: EuskoTren
Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarna-zabaldik pasatzen da

AZPEITIA-ZESTOA-ZARAUTZ

Astegunak: 6:40, 8:30, 10:40, 13:25, 15:10, 18:10
Asteburuak eta jaiegunak: 15:40, 18:10, 20:10
Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ZUMARRAGA (hospitela)

Astegunak: 6:55, 8:25, 10:25, 12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25, 19:25
Asteburuak eta jaiegunak: 7:40, 8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 16:40, 18:40, 19:40
Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ERREZIL-TOLOSA

Astegunak: 6:55, 13:55
Asteburuak eta jaiegunak: 6:55, 11:10
Enpresa: EuskoTren

GARRAIO ENPRESEN EDO ELKARTEEN TELEFONO ZENBAKIAK

Aldalur	85 27 18	Pesa	902 10 12 10
EuskoTren	15 06 77	Piper Unibertsitate Elkarte	85 25 87
La Guipuzcoana	85 11 59	Taxiak	-81 13 07

ITZULTZEKO

DONOSTIA-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 7:50, 8:50, 11:05, 12:05, 13:05 (1), 14:05 (1), 15:05, 17:30, 18:30 (1), 19:30 (1), 20:00 (3), 20:30
Larunbatak eta abuztuko astegunak: 8:50, 12:15, 14:30, 16:00, 18:00, 20:00
Igandeak eta jaiegunak: 18:00, 20:00
Enpresa: La Guipuzcoana
Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 3: Eskola egunetan soilik

BILBO-EIBAR-AZPEITIA

Astegunak: 10:30, 14:30, 21:00
Larunbatak: 9:30, 14:30, 21:00
Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 12:30, 21:00
Enpresa: Pesa

LEIOA-BILBO-AZPEITIA

Astegunak: 13:00, 14:05, 18:00, 20:00
Enpresa: Piper Unibertsitate Elkarte

AZKOITIA-AZPEITIA

Astegunak: 6:30, 6:45, 7:00, 8:05, 8:15, 9:00, 10:00, 10:30, 11:00, 12:00, 13:00, 13:15, 13:45, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00
Asteburuak eta jaiegunak: 6:45, 7:15, 9:15, 10:15, 11:00, 11:35, 12:15, 13:35, 14:15, 15:30, 16:15, 17:35, 18:00, 18:15, 20:00, 20:15, 21:15, 21:55
Enpresa: EuskoTren

ZUMAIA-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 6:00, 6:30, 7:00, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00 (1), 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 22:00
Asteburua eta jaiegunak: 6:35, 7:15, 8:15, 10:15, 10:55, 12:15, 12:55 (2), 14:15, 16:15, 16:55, 18:15, 16:55, 18:15, 19:15, 21:15
Enpresa: EuskoTren
Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da

ZARAUTZ-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 7:15, 9:00, 11:15, 14:00, 16:00, 18:45
Asteburuak eta jaiegunak: 16:30, 19:00, 21:00
Enpresa: EuskoTren

ZUMARRAGA (hospitela)-AZPEITIA

Astegunak: 7:35, 9:30, 11:30, 13:30, 14:30, 15:30, 17:30, 19:30, 20:30
Asteburuak eta jaiegunak: 8:45, 9:45, 11:45, 13:45, 15:45, 17:45, 19:45, 20:45
Enpresa: EuskoTren

TOLOSA-ERREZIL-AZPEITIA

Astegunak: 9:30, 18:30
Asteburuak eta jaiegunak: 9:30, 12:00
Enpresa: EuskoTren

argazkilaye: Antxieta Antzerki Taldea

Antxieta antzerki talde zenari begirada

● **ANTXIETA ANTZERKI TALDEA.** 1981ean sortu eta abiatu zen Antxieta Antzerki Taldea. Taldeak Azpeitira antzerkiaren pizkunde berri bat ekarri zuen. 1983an Euskal Antzerki Topaketak sortu ziren. 1997an egin zuen azken lana, Nagore Aranburuk idatzitako *Ama minutu gauerdirako* antzezlan. Taldea desegin egin da.

● **LANAK.** la lehenego hamar urteetan Imanol Elias izan zen zuzendaria, eta haren antzezlan ugari taularatu zuen Antxietak. Urte hauetan, eta taldea desegin den arte, hamalau antzezlan egin dira eta 35 lagunek parte hartu dute taldean —gehienak azpeitiarrak; besteak, azkoitiar, elgoibartar eta zumaiarrak—.





1. 1986.

Haunditasun ametsak ize-neko antzezlan. Ezkerretik hasita, Itziar Oiarzabal, Iñaki Bergara Pio eta Pilar Aizpitarte.

2. 1984.

Lapurreta urtsua antzezlan. Itziar Oiarzabal eta Joxe Mari Olaizola zutik. Jaione Beobide, Joxe Zabala eta Iñaki Bergara eserita.

3. 1985.

Bi ahoko ezpata antzezlan. Jaione Beobide, Juanito Bikendi, Nicolas Sorazu eta Jose Luis Berasategi.

4. 1983.


Jokoa nagusi antzezlan. Joxe Aranburu, Abel Eizagirre eta Joxe Zabala.

5. 1989.

Sendagile dantzaria antzezlan. Leire Betegi, Juanito Bikendi eta Aintzane Aranbarri.

6. 1987.

Hiru morroiak antzezlan. Pilar Aizpitarte eta Iñaki Pio.





7



8



9

7. 1992.

Nork-Nori-Nork lana. Ezkerretik hasita, Leire Betegi, Aintzane Aranbarri eta Nagore Aranburu.

8. 1991.

Komedi zaharrak lana. Ezkerretik Pilar Aizpitarte eta Iñaki Pio (zutik); Joxe Zabala, Joxe Kerejeta eta Iñigo Agirre (belauniko).

9. 1997.

Hamar minutu gauerdiko lana, Antxietaren azkena. Ezkerretik eskuinera Pilar Aizpitarte, Asier Agiriano eta Leire Betegi.



LORATEGIA

Zutabeak idazten ditugunon arazo ulergarriena izaten da, askotan, zer idatzi ez dakigula. Idatzitakoak zerbait esan behar dio irakurleari, eta zerbaiterako balio duela pentsatu behar du egileak. Hitzak, hitz egoki batek —hainbestetan esan izan da—, mundua alda baitezake. Idazleak pentsatu eta sinetsi behar du hitzak, mundua osoa ez bada, zerbait behintzat alda dezakeela. Zerbait behinik behin. Jai du bestela. Baina horrek erantzukizun handia eskatzen du.

Sarritan zaila da gai bat —gai egoki bat— aukeratzea. Lagunei galdetu, ganbara aldea astindu, han-hemenka hari esanguratsuen bila aritu. Baina, horra ironia, kontrakoa ere ez da samurra: gaia nabariegia denean, alegia. Norberak aukeratzen duena eta gainontzekoek aukeratuko dutena bat eta bera izango direla garbi dagoenean. Oraingoan, adibidez, berehalakoa da zein izango den gai nagusi-aipatu-azpimarratuena. Nola heldu, orduan? Guztiok gai bera hautatzen badugu, nola saihestu errepikapena; nola lortu ikuspegi —ahal den neurrian— berri bat? Zer esan, azken batean, *Euskaldunon Egunkaria*-rekin gertatu denaren inguruan, eta dagoeneko aipatu ez dena?

Perspektiba saia genezake, beharbada. Pixka bat urrundu, eta kontu guztia gurekin ez balihoa bezala ikusi. Osasungarria izan liteke, gainera, perspektiba gabeitsuak baikara. Eta erraztasun ikaragarria daukagu itsutasunean erortzeko.

Zer ikus dezakegu urrunetik? Oztopo bakoitzak, erakutsi digute, dagokion bedekapena darama berarekin. Duela gutxi, adibidez, *Euskaldunon Egunkaria*-koek —barkatu: *Egunero*-koek; goian bego *Egunkaria*— deitu zidaten, harpidetza kontua zela eta. Orain arte ez da egon Azpeitian banaketa zerbitzurik, harpidedun kopuru jakin bat behar zelako, eta gurean ez zelako osatzen. Jada ez. Berehala hasiko omen da banaketa zerbitzu hori.

Egunotan irakurri izan dugu, baita ere, *Egunero* egunkaria egun bakar batean 75.000 mila ale saltzera iritsi dela, eta zenbait egunetan ez dela 50.000 aletik jaitsi. 50.000 ale! Hori, gauden moduan kontuan hartuta, egundokoa da. Kristorena. Onenarekin geratu behar badugu, hortaz, har dezagun hau: *Egunkaria*-k ez zuen sekula horren herena ere lortu! Laurdena, nekez. Agian egia da —zilegi bekit zinismo puntua— hau guztia euskal kulturaren mesedetan egindako mugida izan dela.

Normalean ez gara konturatzen alboan dugunaz. Egunero-egunero lorategi beraren alboan pasa gai-

BIDEA.
Askoz
interesgarriagoa
da bide
malkartsua
laua baino

tezke, esaterako, baina ez gara jabetuko zein lore eder dauden, zenbaterainoko lana egin duen lorazainak guztia hain ikusgarri egoteko. Eta ez gara jabetuko hor daudelako; egunero ikusten ditugulako; ohitu egin garelako. Egun batean, ordea, ohitura hautsi egingo da eta zerbait bitxia gertatzen dela ohartuko gara: lorategi albotik pasatzean ez ditugu loreak ikusiko. Orduantxe hasten gara konturatzen zer zegoen; propio ikusi gabe ere lore txiki haiek zenbat betetzen gintuzten. Loreak itzul daitezzen nahiko dugu, edo guk geuk landatuko ditugu. Eta berriak loratzean, oraingoan bai, liluraz miretsi eta inoiz baino hobeto zainduko ditugu. Lorarik gabe egon ginen egun gutxi horiek erakutsi zigutelako zenbateraino maite ginen.

Hala bedi.



As. At. Az. Os. Qs. La. Ig.

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

APIRILAK 1 (asteartea)

• KARTEL LEHIAKETA.

Udaleko Kultura Batzordeak XXI. Euskal Antzerki Topaketarako kartel lehiaketarako epea ireki du. Kartelak aurkezteko epea maiatzaren 30an bukatuko da. Kartel lehiaketaren oinarriak Udaletxean, Kultura Sailean jaso daitezke edota 943 15 72 00 telefonora deituta. Uztarriaren webgunean (www.uztarria.com) ere oso-osorik dauke oinarriak.

APIRILAK 3 (osteguna)

• KORRIKA KULTURALA.

Korrika Kulturalaren barruan Txan Magoa izango da. Sarrera hiru euro da eta Soreasuko leihatilan izango dira salgai egunean bertan. 18:00etan. Soreasun.

• HITZALDIA.

Nafarroa osoa/Euskal Herria: geure historia ezagutzen hitzaldi sorta. Ikasberri Azpeitiko Ikastolak antolatuta. Gaia: 1700, *dinastia borboidarra eta monarkiaren Nueva Planta.* Hizlaria: Lartaun Egibar, historiagilea eta Nabarraldeko kidea. Herriar guztiei zuzendua. 20:30ean. Ikasberri

apirilak 4 (ostirala) • 15:45ean • Herrian zehar



MIKELATS AEK EUSKALTEGIA

TXIKIENEN KORRIKA. Korrika 13. apirilaren 6an, igandea, helduko bada ere Azpeitira, herriko txikienek Korrika Txikia egingo dute apirilaren 4an. Herriko ikastola eta ikastetxetako ikasle gehientsuenak parte hartuko dute bertan. Igerileku aurretik aterako da, 15:45ean, eta herrian zehar ibili ondoren plazan bukatuko da. Bertan, kale antzerkia izango da.

Azpeitiko Ikastolako, lehen pisuko biltokian.

• HITZALDIA.

Udalbiltzak antolatuta Eskubideen Karta gai hartuta hitzaldia. Hizlaria: Miren Odriozola, Azpeitiko udaleko ASako zinegotzia eta Udalbiltzako kidea. 20:30ean. Aitonean.

APIRILAK 6 (igandea)

• ARGAZKILARITZA.

XXVI. Urola Bailerako Argazki Rallya. Azpeitiko Argazki Elkarteak antolatuta. Izen ematea, 08:30ak eta 09:00ak artean Argazki Elkartearen egoitzan, Julian Elorza kalea 4an. Ibilbidea: Azpeitia eta Getaria artean.

• KORRIKA EGUNA.

Korrika 13 pasatuko da. 11:00etan Lasaon (errepidean) Azpeitiko herriak hartuko du lekukoa. 11:00etan, kalejira trikitilariekin. 11:30ean, Korrikari ongi etorria Eskuztan. 14:30ean herri bazkaria azoka plazan eta txotxa. Bazkariako txartelak ohiko tabernatan daude salgai.

APIRILAK 9 (asteazkena)

• HITZALDIA.

Baite Euskara Elkarteak antolatuta. Hizlaria: Koldo Izagurre idazlea. Gaia: *Greenwichkoa ez da meridiano bakarra.* 20:00etan. Enparanen.

• HITZALDIA.

Habea, Azpeitiko bilgune




HORTZ KLINIKA

Antonio Rafaniello

- Odontologi orokorra
- Odontologi estetikoa
- Aho zirujia
- Ezarpen osoak
- Protesi mugikorraren aldaketa protesi finkora
- Pieza gabekoa pieza finkora aldatzea

Enparan 8 - 1 Tel.: 81 67 36



- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- ASEGURUOK
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 30

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net



gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdiak:
943 15 16 40



AIZPURU

AUTOAK

PEUGEOT

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59

abertzale eta ezkertiarak antolatuta, *Gure herria, historia ezagutzen* hitzaldia. Gaia: *Azpeitian 1767ko matxinada*. 20:30ean. Aitonena I-en.

APIRILAK 12 (larunbata)

• ARETO FUTBOLA.

Lehen Maila: Jostaldi Kirolak- Nevada Venta Berri. 16:30-ean. Kiroldegian.

• FUTBOLA.

Hirugarren Maila: Lagun Onak- Zalla. 17:00etan. Garmendipen.

APIRILAK 13 (igandea)

• MENDIA.

Santa Engrazira egun osorako mendi irteera. Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Irteera 09:00etan. Plazan..

APIRILAK 17 (osteguna)

• MENDIA.

Sierra Nevadara (Andaluzia, Espainia) egun batzuetarako, Aste Santuan mendi irteera. Apirilaren 20an izango da bueltako eguna. Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Aurrez izena eman beharko da Lagun Onak Mendi Bazkunaren egoitzan. Telefono zenbakia: 943 81 20 25.

APIRILAK 22 (asteartea)

• GAZTE ASTEA.

IV. Gazte Astea. Udaleko Gazteria Sailak antolatuta.

Pultseren tailerra, 10:00etan. Zapo Txokon. Espeologia: Lasturrera irteera. 15:00etan. Zapo Txokon irteera.

APIRILAK 23 (asteazkena)

• GAZTE ASTEA.

IV. Gazte Astea. Udaleko Gazteria Sailak antolatuta. Patinaje ikastaroa, Loiolan. 09:30ean. Zapo Txokotik izango da irteera. Kirolak: artzai froga, sokatira, lasto alztatzea... Betharrandarretan. 16:00etan.

APIRILAK 24 (osteguna)

• GAZTE ASTEA.

IV. Gazte Astea. Udaleko Gazteria Sailak antolatuta. Goitibeherak eta estentsioak. 10:00etan. Zapo Txokon. Kirol torneoak: futbitoa eta squash-a. 15:00etan. Kiroldegian. Hip hop dantza saioa. 16:00etan. Zapo Txokon.

APIRILAK 25 (ostirala)

• GAZTE ASTEA.

IV. Gazte Astea. Udaleko Gazteria Sailak antolatuta. Bizikleta irteera Zapo txokotik. 10:00etan. Kirol torneoak: futbitoa eta squash-a. 15:00etan. Kiroldegian.

APIRILAK 26 (larunbata)

• GAZTE ASTEA.

IV. Gazte Astea. Udaleko Gazteria Sailak antolatuta.

zinea euskaraz

• 'EKIALDEA EKIALDE'.

Damien O'Donell-ek zuzendua. Erresuma Batua. 1999. 12 urtetik gorakoentzat. Apirilaren 5ean (larunbata, 19:30). Soreasun.

• 'CHICHIROREN BIDAIA'.

Hayao Miyakazi-k zuzendua. Japonia. 2002. Sei urtetik gorakoentzat. Apirilaren 6an (igandea, 17:00). Soreasun.

• 'ENE LAZTANA'.

Jesus Morak zuzendua. Espainia. 2000. 13 urtetik gorakoentzat. Apirilaren 12an (larunbata, 19:30). Soreasun.

• 'HEGOALDEAREN LILURRA'.

Juanba Berasategik zuzendua. Euskal Herria. 2002. Sei urtetik gorakoentzat. Apirilaren 13an (igandea, 17:00). Soreasun.

Gazte Asteko kirol torneoen finala. 10:30ean. Kiroldegian. IV. Gazte Asteko azken festa: musika, moztorroak, sari banaketak eta afari merienda. 16:00etatik aurrera. Zapo Txokon.

• FUTBOLA.

Hirugarren Maila: Lagun Onak- Bermeo. 17:00etan. Garmendipen.

APIRILAK 27 (igandea)

• MENDIA.

Mandoegi mendira egun guz-

tirako mendi irteera. Zentral eolikoan aurkako martxa izango da. Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta.

APIRILAK 28 (astelehena)

• ARGAZKILARITZA.

XXIV. Kutxa Juan Antxieta Argazki Lehiaketa, 2003ko Inauteriak eta sokamuturrari buruzkoa. Sari banaketa egingo da 19:00etan. Ondoren, lehiaketara aurkeztutako argazkiekin erakusketa irekiko da. Erakusketa maiatzaren 16a arte izango da zabalik. Astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etarako ordutegian. Antxieta etxean.

APIRILAK 30 (asteazkena)

• ODOL EMATEA.

Odol emate eguna. Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak deituta. 18:30etik 21:00etara izango da. Anbulategian.

MAIATZAK 1 (osteguna)

• MENDIA.

Azpeitia-Iltziar mendi ibilaldia. Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Irteera 08:00etan. Plazan.

Zeuen ekitaldiak-eta Uztarriara helarazteko aukerak:

- Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerria (Azpeitia)
- 943 - 15 03 58 telefonoa / faxa
- uztarria@topagunea.com



Jose de Artetxe, 17 Ibai Ondo, 28
Tel. 943-810664 Tel. 943-850445
AZPEITIA AZKOITIA



Elizkale, 22 • Tf. 943-812167 • piklain@jet.es



JOSE ARTETXE, 10
Tel. 943 81 52 44



Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62

Zoruen estaldura: kortxo, moketa, sintasol...
Paper pintatuan aukera handia

**URBISTONDO
MARGOAK**

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"


Salbe Auzunea, 35 behe

20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Ainhua Bastida

Txinan ikasle

Pekin-era begiratue



- Txinako hiriburue da. Ipar-ekialdien dago.
- Hamabi milioi lagun bizi dire.
- Txinera hitz egiten da, 'putong-hua' hizkuntzie.
- Komertziyo eta zerbitzu arluen egiten du lan jende gehienak.
- Erlijio nagusiek budismue eta taoismue dire. Baino musulmanak, kristauak eta juduek ere badaude. Hala ere, komunismue dala-eta askok ez dauke erlijiorik.

“Hizkuntzie menderatzeko asmoz etorri naiz Txinara”



AINHOA BASTIDA

Sei hilebete daramazki Ainhoa Pekin-en, eta oso gustoa dago bertan. Granadan itzulpengintza ikisi zuen, eta orain txinera ikisten ari da Pekingo unibertsitatien.

• **Txina ez da atzerriyen izen zeran lehenen herriye, ezta?**

Ez, Erasmus bekie jaso nuen eta urtebetez Frantziyen izen nintzen. Gero beste beka bat lortu nuen eta Eskoziyen egon nintzen bost hilebetez.

• **Ze asmo daukezu Txinan?**

Hizkuntzie menderatzeko asmoz etorri naiz honea, noiz edo noiz hor lan egiteko. Hemen euskal enpresa ugeri dago.

• **Eta hizkuntzarekin ondo?**

Etorri nintzenien gaizki. Bost urte txinera ikisten eta ezin nuen jendearekin komunikatu. Orain, ordie, oso ondo, ikisteko asko falta zaiten arren ez dauket komunikatzeko arazorik.

• **Zerrek harritu zaitu gehien Txinan?**

Espero baino modernuago da. Banekien asko aldatute zagoela, Pekin batipat, baino ez nuen hau espero. Kotxe, bizikleta, oinezko... nahastiek harritu ninduen gehien. Denborarekin ohitu egin naiz. Gainontzien, batzuen eta bestien arteko ezberdintasunek, mendebaldeko bizimodu daraman jendie ikustiek eta Erdi Aroko moduko bizitzie duen jendie topatziek.

• **Denbora librien zer egiten dezu?**

Asteburuten hiriko tenpluek, monumetuek... ikusten saiatzen naiz, eta noizik behin Harresi Haundiye mendi bueltie ematen degu. Inguruek ikusten ditut.

• **Eta janariyeekin zer?**

Ez det arazorik. Aurrez asko gustatzen zitzaiten, eta orain hemen dagoen eskaintziekin... hobeto. Txakurrik-eta ez det jan, barazkijalie naiz eta. Bada gauze kurioso bat, arraultze mota bat, lokatzatan edukitzen debe denbora luzez (urteetan ziherr) eta jelatina beltz moduko bat da emaitza; oso goxue dala onartu beher da.

• **Herri-minik bai?**

Ohitute nago kanpuen egotera, baino Gabonak lehenengoz etxetik kanpo pasatzie...

Leire Larrañaga


HANGO JENDIE. “Jende jatorra da. Pekinen ohitute daude kanpotarrakin, baino hiriburutik kanpo ertenez gero iruzur egiten saiatzen dire danien”



24 hilabete interesik gabe
Larunbat arratsaldetan zabalik



- erakusketa zabala: 1.450m² ko erakustokia
- gremioen koordinazioa
- zure neurriko prezioak



Santi Lazkano Kirolak

udaberria - udara



Jose Artetxe, 1

Tel/Fax: 943 81 16 50



Babesa
gazte moda

DESBERDINDU ZAITEZ!

BAITA UDABERRIAN ETA UDAN ERE

Xanjuandei auzuen gatzauden! Urbitarte, 9 ♦ Tel. 943 151369